

ELKARRIZKETA: CLAUDIO NARANJO • ESPERIENTZIAK: IKASBIDE IKASTOLA-
KO LANTEGIAK • GALDEIDAZUE: ABEL ARIZNABARRETA • HEZKIDETZAZ:
BULLYNGA • PLANETARIUM • ATZEKO ATETIK: MAITE ARISTEGI

hh
hik hasi

136

4 EURO • 2009KO MARTXOA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Pedagogia 2009


Etorkizunak baturik behar gaitu

orain
euskaraz!




RiTA

Mikel Valverdek sorturiko
pertsonaiaren eskutik abenturaz beteriko
bi liburu ezin dibertigarriago.



Rita tenislari: Ritak gehien-gehien maite duena kantua eta dantza dira, eta ospetsu izan nahi du. Gitarrarik ez duenez, aitaren teniseko erraketa hartu eta bere gelan ixten da kontzertuak eskaintzeko. Gurasoek uste dute alabak tenislari izatearekin amets egiten duela, eta hari ezusteko polit bat ematea erabakitzen dute. Zer egingo du Ritak? Berari ez zaio tenisa gustatzen!

Rita Poloan: Rita bere aitarekin doa Ipar Polora. Osaba Daniel ikerlaria han dago, eta hark gonbidatu du iloba; aukera ezin hobea Ritak paraje haiek eta inuit herria ezagutu ditzan. Baina aita alabak Polora iritsi direnean, osabak bidaiatzen zuen itsasontzia izotz artean harrapatuta dagoela jakingo dute. Ez dago denbora galtzerik. Erreskatatu egin behar dute!



10
urtetik
aurrera



aurkibidea



8
gaia

PEDAGOGIA 2009

uban, *Pedagogia 2009* izeneko batzarrean izan ginen artarrilaren 26tik 30era bitartean eta bertan ikasitakoak eta bizi izandakoak aurkeztu dizkizuegu martxoako aleko aian. Ia 5.000 hezitzaile bildu ziren Habanan eta hainbat esperientzia elkartrukatzeko aukera izan genuen. berasgarria, zalantzarik gabe.



16
elkarrizketa

CLAUDIO NARANJO

AT delakoan oinarrituta, irakasleentzako laguntza programak skaintzen ditu Claudio Naranjo txiletarrak. Hezkuntzaren gai-eko hausnarketa egin du Naranjok. Kritikoa da, eta hezkuntza errito definitu beharra ikusten du, bestelako esanahia izan ezan.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

PEDAGOGIA 2009

ETORKIZUNAK BATURIK BEHAR GAITU

16 elkarrizketa

CLAUDIO NARANJO

24 esperientziak

Ikasbide ikastolako lantegiak

26 esperientziak

Bihurrikerien koadernoak

28 hezkidetzaz

Bullyng-aren ezkutuko gakoak bistaritzen

30 galdeidazue

Zer ezaugarri izan beharko lituzke XXI. mendeko Euskal Herriko Hezkuntza Sistema Nazionalak?
Abel Ariznabarreta

33 berriak

40 nora joango gara?

Planetarium

Planetak, sateliteak, izarrak... bertatik bertara


42 Atzeko atetik

Maite Aristegi

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Arantxa Urbe, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Pedagogia 2009 batzarrera joan ginen taldea, Habana. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-2-24). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaituz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararazten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

editoriala martxoa

Heziketa funtsezkoa da duintasuna, giza eskubideak, bakea eta justizia errespetatzeko



Irakasleak ongi zaindu behar dira eta kritikoak izan behar dute, bizitza maitatu, sormena izan, kontzientziak esnarazi behar dituzte eta baliorik onenen defendatzaileak izan behar dute.

Urtarrilaren amaieran, 25 kideko taldea izan zen Habanako "Pedagogia 2009" biltzarrean, Hik Hasik antolatuta.

Euskal Herriatik abiatutako taldean, unibertsitateko irakasleak, aisialdiko hezitzaileak, Haur Hezkuntzako Partzuergokoak, Haur Hezkuntzan, Lehenan edo Bigarrenean ari diren irakasleak, hezkuntza kazetariak, eta, hezitzaile guztiekin batera, alaba eta seme asko hezi dituen ama jubilatuta bat ere joan zen.

Latinoamerika eta Kariben arnasten ari den aire berria ezagutzeko eta bizitzeko parada izan genuen. Kuba, inguruko herrialdeentzako hezkuntza eredu dela garbi dago. Eredua izateaz gain, bere programak hedatzen ari dira gero eta herrialde gehiagotan.

Aukera izan genuen, bestalde, Ena Elsa Velazquez Kubako hezkuntza ministro berria ikusteko eta haren hitzaldia entzuteko. Beste gauzen artean, "Irakasleak ongi zaindu behar dira eta kritikoak izan behar dute, bizitza maita-

tu, sormena izan, kontzientziak esnarazi behar dituzte, uste sendoak landu eta baliorik onenen defendatzaileak izan behar dute" zioen.

Hainbat ikastetxe bertatik bertara ezagutzeko aukera izan genuen. Norberak zer eskola mota ezagutu nahi zuen erabaki ondoren, HH, LH, BH, Unibertsitatea, Eskola Espezializatuak (hezkuntza berezia, musika, dantza, soinketa...) hara joaten zen.

Taldekoak, eta programatik kanpo, Habanako Alde Zaharreko museo eskolak ezagutzeko aukera izan genuen. Badira gela batzuk museo zehatzetan kokatuta daudenak. Han pasatzen du 10 urte inguruko ikasle taldeak ikasturtea. Hango museoaren edukia eta espezialitatea hartzen dute ikaskuntza prozesurako abiapuntua.

Kuba, herrialde pobrea izanda eta blokeo ekonomikoa urtetan jasaten ari dela kontuan hartuta, miresgarria da hezkuntzari eskaintzen dion garrantzia. Lehen Hezkuntzan 20 ikasle dute

gehienezko kopurua, eta, Bigarren Hezkuntzan 15. Horren arrazoia, nerabe garaian ikasleek gertuko jarraipena eta laguntza behar dituztela da. Neurri horrekin, bizikidetzan eta emaitza akademikoetan asko irabazi omen da, gurasoekin harremanak eta haien parte hartzea errazagoak baitira.

Irakasleen prestakuntzari ere garrantzi handia ematen diote. Bost urteko prestakuntza da. Lehen urtean, prestakuntza pedagogiko orokorra jasotzen dute eta hurrengo lau urtean, praktika eta lana egiten dute eskolatik gertu kokatzen dituzten mikrounibertsitateetan. Hala, teoria eta praktika aldi berean lantzen dituzte.

Helburuak jartzea eta lortzea garrantzitsuak badira ere, horiek lortzeko egiten den bideak markatzen du jendartearen ilusioa, poza, elkartasuna, talde sentimendua... edo, aldiz, guztiz kontrakoa.

Gure bidaiari, lehenengoa nagusitu da. Zorionak bidaiari guztiei!

kronika

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan aurrematrikulazioak iraun duen bitartean asko izan dira D ereduan matrikulatzeko deiak. Euskal Herri osoan eredu bakarra izan dadin, Eskolak Euskaldundu herri ekimenak hezkuntza sistema nazionalaren beharra aldarrikatu du, eta LAB sindikatuak, Euskal Herrian Euskarazek, Ikasle Abertzaleak taldeak, Sortzen-Ikasbatuazek, Euskal Herriak Bere Eskolak eta Anitzak, Euskal Herritik kanpo etorritako pertsonak osatutako herri ekimenak ere, bat egin dute eskaera horrekin. Aurrematrikulazioak berrikuntzak ekarri ditu aurten, horien artean, izan da, gurasoek seme-alabek zein erlijio ikastea nahi duten hautatzeko aukera izan dutela: katolikoa, musulmana, ebanjelikoa edo judua.



Berria

Seaskak Frantziako Gobernuaren jarrera salatu du

Frantziako Hezkuntzak bere hitza bete ez duela salatzen mobilizazioa egin zuen Seaskak joan den otsailaren 11n. Ikasturte hasieran jakinarazi zuen Seaskak sei hilabeteko lanen ondoren Frantziako Hezkuntzarekin akordioa lortu zuela. Frantziako Hezkuntza akordioa berrestearren zain zeudela esan zuen orduan Paxkal Indo Seaskako presidentek, baina Akademia Ikuskaritzaren bidez, Frantziako Gobernuak ukatu egin zuen, gerora, akordioa lortu zutenik. Negozioazioak iazko urtariletik ekainera bitartean izan zituzten, lau punturen inguruan ados jartzeko. Horien artean nagusia, irakasle postu kopurua kalkulatzeko irizpideetan ados jartzea zen.

Seaskak gero eta irakasle gehiago ditu baina Frantziako Hezkuntzak ez dizkio behar adina baliabide ematen.

Aurten 200 ikasle gehiago ditu Seaskak, baina bere gain hartu behar izan ditu 14 lanpostu eta erdi, hau da, 300.000 euro. Bestalde, datorren ikasturtean ikastola berriak ireki nahi dituzte Bidarten eta Itsasun, eta 2010. urtean Lekuinen beste ikastola bat irekitzea aztertzen ari dira.

Baina pauso horiek emateko, akordioaren beharra dute, eta Frantziako Hezkuntzaren izenean diharduten ordezkariak "joko maltzurrian" dabiltzala uste dute ikastolek.

Murgiltze ereduarekin kezkatuta

Frantziako Gobernuak irakasle izateko eskakizunak gogortu nahi ditu eta horrek kezka piztu du hizkuntza gutxituetan diharduten murgiltze ereduetan. Britainia, Alsazia, Katalunia, Okzitania eta Euskal Herriko ordezkariak agiri bateratua helarazi diote gobernuari, aldaketak guztiengan izango duen eragina salatzen.

"Zuei esker 10 urte, zuekin behar bezainbeste"

Seaskaren Integrazio Batzordeak kanpaina abiatu du eta orain arte bezala, aurrera begira ere, adimen urriko haurrak eskolaratzeko "berme bakarria elkartasuna dela" azpimarratu dute. Hamar urteko ibilbidea ospatzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte.

Oso zaila da umeen iritzia errespetatzea.

Imanol Urbiet



Iturrama institutuko zuzendaritzak dimisioa aurkeztu du

Iturrama institutuko zuzendaritza osoak dimisioa aurkeztu du irailaren 27an, Gudari Egunean, ikastetxean izandako omenaldiak izan dituen ondorioak direla eta. AVT elkarteak sakaketa aurkeztu zuen omenaldia zela eta, eta fiskaltzak aintzat hartu zuen. Horren ondorioz, hiru ikaslek deklaratu dute Madrilgo Auzitegi Nazionalan eta beste hamalauk deklaratu dezakete. Pedro Otaduy Iturrama institutuko zuzendariak omenaldian parte hartu zuten ikasleen izen-abizenak eskaini zizkien gazteen bila ikastetxera joan ziren polizia LABek jakinarazi zuenez, eta sindikatuak gogor kritikatu zuen zuzendariaren jokabidea.

Era berean, Iturrama institutuko

gurasoek ez dute zuzendariaren jarrerara ulertu eta hala jakinarazi zuten eskutitz publiko baten bidez. Ikasleei babesa azaldu zieten eta kasu honetan ahulak ikasleak direla azpimarratu zuten. Eskutitzean adierazi zuten, ez dute ulertzen zuzendariak ikasleen izen-abizenak Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku jarri izana. Zuzendariari, guztia agerian geratu den arte egindakoa ukatu izana leporatu zioten eta baita gertaerak nahasi izana ere. Ondoren, barkamena eskatuz eskutitza kaleratu zuen Otaduyk, baina gurasoek ez zuten onartu. Azkenean, Pedro Otaduyk eta Iturramako zuzendaritza taldeak dimisioa aurkeztu zioten eskutitz bidez otsailaren 12an Patxi Esparza, Hezkuntza Departamenduko Ikuskaritza eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiari.

Auziak zeresan handia eman du Iruñerrian. Institutuetako Zuzendarien Elkarteak, NaBaik eta Irakaskuntzako langileen batzordeak (Afapna, ELA, LAB, EILAS, ANPE, APS, CSIF eta CCOO daude ordezkatuak) babesa agertu diote Otaduyri. Ikasle Abertzaleak antolakundeak, berriz, Iruñerriko ikasleek ikastetxeetan salbuespen egoera bizi dutela salatu du. Eskubide guztiak ukatuak dituztela eta egoera onartezina dela esan du IAK.

Itunpeko eskolen ustez aurrerapausoa da Eusko Jaurlaritzarekin lortutako akordioa. Kristau Eskola, Ikastolen Elkarte-Partaide, EIB Eusko Ikastola Batza eta IZEA Irakaskuntza Zentroen Elkarte Autonomoa pozik agertu dira, baina, zerbait gehiago nahi zutela adierazi dute, eta beharrezko jo dute Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistema arautuko duen legea. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 14 milioi euro emango die itunpeko ikastetxeei, tutore, aholkulari eta gidatzaileen lanpostuak finantzatzeko, eta ordezkapenei bideratutako diru laguntzak % 2 handituko ditu. Itunpeko ikastetxeek, ordea, finantzaketaren % 100 diru publikoz egitea eskatzen dute. Bestalde, Batxilergoaren dekretua onartu dute dagoeneko, beraz 0-18 urte bitarteko curriculumaren onartua dago. Gainera, EAEko Auzitegi Nagusia curriculumaren alde agertu dela eta, pozik azaldu da Tontxu Campos hezkuntza sailburua. IAK, ordea, Batxilergoko curriculumaren "ezkutuan" onartu dela salatu du, eta "asimilazioa" bilatzen duela.

GAIA

Pedagogia 2009

Etorkizunak baturik behar gaitu





la 5.000 partaide, 40 herrialde-
gorako ordezkari-
tza, ehundaka ponentzia,
ikastaroak, eskoletara bisita-
tak, hitzaldiak, kultur ikuski-
zunak... Bost egun besterik
ez du iraun *Pedagogia 2009*
batzarrak, baina biziak izan
dira, oso. Habana Latinoa-
merika eta Karibeko hezi-
tzaileen topaleku izan zen
urtarrilaren 26 eta 30a bitar-
tean. Geuk ere Atlantikoaren
beste aldean egoteko aukera
izan genuen, eta bertakoen
esperientzietatik asko ikas-
teaz gain, geure aletxoak jarri
genuen Euskal Herriko espe-
rientziak ezagutaraziz. Espe-
rientzia aberasgarria izan
da, eta zuekin partekatzea
interesgarria iruditu zaigu-
nez, hemen duzue egun ho-
rietan bizi izandakoaren la-
burpena.

G

Ikasgeletan eserita dugun etorkizunak baturik behar gaitu, ikasteko itxaropenez dauden milioika gizaki horiek baturik behar gaituzte.

Ena Elsa Velazquez Cobiella, Kubako Hezkuntza ministroak eskaini zuen *Pedagogia 2009* batzarraren irekiera ekitaldiko hitzaldia, eta Iraultzaren 50. urteurrenean hezkuntzaren egoera zein den aztertu zuen. Lehenik, munduko herritar guztiak kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea dutela azpimarratu nahi izan zuen Velazquezek. Herrialde askotan pauso garrantzitsuak eman direla adierazi zuen, baina oraindik badela lana egiteko beharra. Herrialde guztietan transformazio pedagogikoa jarraitzea beharrezko jo zuen, eta hezitzaileen egitekoa gorai-patu zuen, ezezagutzaren itzalak, etorkizuneko argi eta itxaropen bihurtzen dituzten borrokalari nekaezinak direla esanaz. Haren hitzaldiko pasarterik esanguratsuenak ekarri ditugu orri-tara:

Iraultzaren eragina hezkuntzan

Kuban guztientzako hezkuntza lortu dugu, aurretik guztientzako iraultza izan genuelako. 1959ko urtarrilaren 1-ean justizia sozialari ateak ireki zitzaizkion eta horrek herriaren gainerako konkista guztiak ekarri zituen, baita hezkuntzan ere. Lehen aldiz izan ziren eskolak eta maisu-maistrak herrialde osoan; alfabetatzea eta jarraipen eta hobetze planak; irakaskuntzaren erreforma; beken plan masiboa; irakasleen eskari handia; irakaskuntzaren nazionalizazioa; pribilegioen eta diskriminazioaren amaiera; ikasketen, ikasliburuen eta material guztien erabateko doakotasuna; hezkuntzaren hobekuntza jarraia; ikerketa pedagogikoen garapena; sinesmen, ideia politiko, sexu edota azalaren koloreak eragindako bereizketarik gabeko aukera berdintasuna...

50 urteren ondoren, bestelako borrokaldi batean gaude. Lan hori hobetu eta erronka handi baten bidez jarraipena eman behar diogu: irakaskuntza-

ikaskuntza prozesuaren kalitatearen hobekuntza egin behar dugu alderdi guztietan. Iraultzak ahalegin handia egin du hezkuntza maila guztiei ikus-entzunezko bitarteko sistema moderno eskaintzeko. Horretan, egiteko garrantzitsua izan du telebistak, bi heziketa kateren bidez emisioak eginez, eta baita bideoek eta ordenagailuek ere.

Hezkuntza etapak

*Hasierako hezkuntza eta eskolau-
rrea*

Kubako haurren % 99k jasotzen du heziketa. Osasun zerbitzuekin, familia-ko mediku eta erizainekin, Kubako Emakumeen Batzarrarekin eta komunitateetako bizilagunekin egiten duten elkarlanari esker haurren % 99ri arreta ematea lortu dugu haur eskolen bidez eta "Hezi ezazu zure seme-alaba" izeneko programaren bidez, bide ez formaletatik eta gurasoen prestakuntzarekin. Sei urteko haurrentzat eskolau-
rreko maila zabaldua dago, adin horretan telebista eta bideo programen laguntza dute, eta ordenagailu programak erabiltzen hasten dira.

Lehen Hezkuntza

823.000 ikasle baino gehiago hartzen ditu Lehen Hezkuntzak, 8.999 eskoletan. Horietatik 6.663 herrialde guztiko nekazal guneetan daude eta esanguratsua da, eskola horietatik 1.456tan bost ikasle edo gutxiagorekin aritzen direla. 2008-2009 ikasturtean matrikulen % 86,9 20 ikasle arteko geletan kokatu dira eta horrek, norbanakoen beharrei arreta egokia emateko aukera eskaintzen du. Orduetegiak malgutzeko hartutako neurriek garrantzi handia dute, izan ere, horien bidez, ikasleek haien formazio integralera zuzendutako ekintzetan parte hartzeko aukera dute. Hirugarren mailan ingelesa ikasten hasten dira, bideo bidezko metodoarekin.

Ena Elsa Velazquez Hezkuntza ministroa

Heziketa berezia

Heziketa behar bereziak dituzten haur guztiek arreta egokia jasoko dutela ziurtatua dago. Haur horiek irakasleen, laguntzaile pedagogikoen eta espezialisten laguntza jasotzen dute. Bestalde, eskolara gerturazterik ez duten 3.200 ikaslek etxean jasotzen dituzte eskolak, irakasleak hara joaten direlako. Eta, denbora luzez erietxean egon behar duten haurrek ere, arreta jasotzen dute osasun etxeetan dauden 30 ikasgeletan. Zeinuen hezkuntzako interpreteak ditugu eta heziketa behar bereziak dituzten ikasleen orientaziorako zentroak eta espezialistak ditugu ebaluazioa, diagnostikoa eta orientazio lanak egiteko.

Oinarrizko Bigarren Hezkuntza

Zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren mailak hartzen ditu eta aldaketak izan dira azkenaldian. Irakasle orokorra dute eta horrek 15 ikasle ditu. Irakasle horrek hainbat bitartekoren laguntza du (telebista, bideoa eta ordenagailua) eta ikasliburuekin eta beste informazio iturri batzuekin batera erabiltzen ditu.

Unibertsitate aurreko hezkuntza

Kultura orokorra lortzeko egiten da lan. Ikasleek bizitzan dituzten helburuak aintzat hartzen dira eta garrantzia ematen zaio aberriarekin eta interes sozialekin konpromisoa hartzeari. Irakasle bat izaten da 30 ikaslerekin eta instrukzioa laguntzeko, teknologia modernoa izaten du eskura. Egun irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatea hobetzeko ahalegina egiten ari dira, goi mailako hezkuntzara sartzeko prestakuntza hobea berma dadin.

Hezkuntza tekniko eta profesionala

Erdi-goi mailako teknikariak prestatzea du helburu, hainbat espezializetatan. Ikasleei enpresetan praktikak



Ena Elsa Velazquez, Kubako hezkuntza ministroa.

egiten ari diren bitartean arreta zuzena eskaintzen zaie. Langileen beharrei aurre egiten zaie praktika horien bidez eta ikasleek, ikasketak amaitzean, lanpostu ziurra dute.

Arte instruktoreen prestakuntza

Arte instruktoreek eskoletan egiten dute lana batez ere.

Helduen hezkuntza

Helduen hezkuntzarako programak haien ikasketa mailaren arabera eskaintzen ditu ikasketak eta gainera, lanpostuarekin lotzen dira. Helburua, erdi-goi mailako hezkuntza amaitu eta unibertsitateko ikasketak jarraitzea da. Programa horretan parte hartu duten 50.000 gaztek baino gehiagok jarraitu dituzte ikasketak goi mailako hezkuntzan. Era berean, Azukrearen Industriako Langileentzako Hobekuntza Kulturaleko Programak haien prestakuntza maila igotzeko ikastera bultzatzen ditu, duten lanpostuaren arabera prestakuntza berezia jasoz. Horrez gain, espetxean dauden pertsonen ikasketa maila igotzeko planak dituzte, justizia soziala eta berdintasuna bultzatzeko helburuz.

Bestalde, hainbat eragile eta era-

kunde politikoa eta masa erakundekin koordinazioan, bederatzigarren maila eskuratu ez duten pertsona helduei arreta eskaintzen zaie. Langileei eta etxeko andreei ere arreta eskaintzen diete Langile Fakultateetan eta Nekazar Fakultateetan erdi-goi mailako ikasketak eskura ditzaten eta horrek, gerora, unibertsitateko edo prestakuntza tekniko eta profesionalerako sarbidea errazten die.

Goi mailako institutu pedagogikoak

Goi mailako zentroak dira eta Kubako hezitzaileen prestakuntzaz arduratzen dira. Guztiak unibertsitate mailako ikasketak dira eta 18 karrera ikasten dira. Gaur egun 113.473 ikasle daude ikasketa horietan izena emanda. Kubako hezitzaileek goi mailako institutu pedagogikoan jasotzen dute prestakuntza lehen urtean, eta bigarren mailatik bosgarrenera, bizi diren herrian ikasten jarraitzen dute mikrounibertsitate moduan aritzen den eskola batean lan egiten duten bitartean. Bertan tutore baten laguntza eta orientazioa jasotzen dute, eta ikasten duten bitartean lanean ari dira euren prestakuntza sa-



konduz. Institutu horietan graduatu diren pertsonen kopurua hazi egin da, pixkanaka. Institutu horien lana, gainerako hezkuntza instituzioekin batera, hezkuntzaren kalitatea handitzeko bide estrategikoa da.

Osasuna eta hezkuntza

Kubako herriak egin dituen konkista sozialik garrantzitsuenetakoak dira osasuna eta hezkuntza, eta Hezkuntza Ministerioak Osasun Ministerioarekin egiten duen elkarlana oinarritzakoa da. Osasunerako heziketak eta osasunaren promozioak lotura dute ikasketzarekin, balioetan hezteko prozesu gisa. Curriculumean eta curriculumetik kanpo lantzen den gaia da, bai familian eta baita komunitatean ere. Ikasketa programek ingurune osasuntsuaren, elikadurararen, sexu hezkuntzaren eta HIESaren prebentzioaren, istripuen prebentzioaren, errepidean ibiltzeko hezkuntzaren, tabakoaren kontrako hezkuntzaren, alkoholaren kontrako hezkuntzaren eta beste adikzio batzuen kontrako hezkuntzaren tratamenduak hartzen dituzte barnean. Gainera, medikuntza naturala eta tradizionalaren ezagutzak transmititzen dira eta baita elkarbizitza eta komunikazioa hobetzeko jarraibideak ere.

Blokeoaren eragina hezkuntzan

Blokeoaren eraginez urrutiko merkatuetan erosi behar dugu eta horrek diru gehiago xahutu beharra dakar, prezioak askotan altuegiak dira eta gure beharrekin bat ez datozen kopuru eta uneetan egin behar ditugu eskaerak. Horrek eragin zuzena du hezkuntzan, hezkuntzaren garapena finantzatzeko iturri nagusietarako sarrerarik ez dugu eta kredituek interes tasa altuak izaten dituzte beti. Hori dela eta, gure kalkuluen arabera, irakaskuntzarako

behar ditugun bitartekoen inportazioa % 25 eta % 30 gehiago ordaindu behar dugu blokeoaren eraginez.

Irakaslearen papera

Irakaslea eskolaren arima da, eta arreta berezia eskaini behar zaio. Irakasleak ongi zaindu behar dira eta kritikoak izan behar dute, bizitza maitatu, sormena izan, kontzientziak esnarazi behar dituzte, uste sendoak landu behar dituzte, eta baliorik onenen defendatzaileak izan behar dute. Irakaslea funtsezkoa da, duintasuna, giza eskubiak, bakea eta justizia errespetatzeko.

Azpigarapenetik ateratzeko eta etorkizuneko gizarte berria eraikitzeko ez danahikoa "irakurtzen eta idazten jakitea". Beharrezkoa da, ezinbestekoa da, hezkuntza irekia izatea, integrala, masiboa eta iraunkorra.

Kubako hezkuntza sistemaren altxorrik preziatuena hezitzaileak dira: pertsona zintzoak, apalak, hobetzeko gogoia dutenak eta eskuzabaltasun handia dutenak. Hori ekintzen bidez erakusten dute. Duela gutxi izan dugun egoera dramatikoaren aurrean ere, hiru hurakanek Kuba jipoitu zutenean, ehundaka eskola suntsituta geratu ziren eta maisu-maistra askok euren etxebizitzak txikituta ikusi zituzten, baina sarraski horretatik ordu gutxira, harrotasunez ikusi genuen maisu-maistra horiek haurrak hartu, euren etxetara eraman zituztela, eta lekuren bat atondu zutela ikasgela inprobisatuz ikasturteak aurrera jarrai zezan. Etxeak galdu zituztenek, haien etxea berreraikitzen baino lehen, eskolak berreraikitzen ikusi genituen ikasleek ahalik eta eskola gutxien gal zezaten. Jarrera solidario hori da balioen heziketaren lezioarik onena, metodorik onenarekin: ekintzen lengoia ixil eta zentzudunarekin.

"Yo sí puedo" eta alfabetatze programak

Iraultza urteotan 15.000 hezitzailek baino gehiagok eskaini dute euren laguntza beste herrialde batzuetan. Kubatar pedagogoen metodo eraginkorrak landu dituzte alfabetatzeko, lehenik, eta oinarrizko hezkuntza lortzeko, ondoren. Horretarako bitarteko gisa, irratia, telebista eta bideoa erabili dira. Hainbat herrialdetan, alfabetatze ekintzak garatu dira eta garatzen ari dira Kubaren laguntzaz: Haiti, Nikaragua, Zelandia Berria, Ginea Bissau, Mexiko, Mozambique, Guatemala, Venezuela, Belize, Argentina, Paraguai, Ekuador, Bolivia, Honduras, Peru, Brasil eta Nigeria, beste batzuen artean. Venezuelak eta Boliviak egindako lana baikortasunez eta pozez hartzen dugu, alfabetismorik gabeko lurralde izendatu direlako.

Esperientzia historikoak erakusten digu soilik batuta eramango dugula aurrera hezkuntza askatasunerako eta izpirituen garapenerako tresna izatearen ideia. Elkarrekin gogor egin dezakegu, elkarrekin aurrera egin dezakegu, elkarrekin irabaz dezakegu. Ikasgeletan eserita dugun etorkizunak baturik behar gaitu, ikasteko itxaropenez dauden milioika gizaki horiek baturik behar gaituzte. Elkarrekin borrokatu behar dugu gizakiaren alde, alfabetatzearen alde, hezkuntzaren bidez pertsonak duin egitearen alde.



Euskal Herriko ekarpena

Euskal Herritik Kubara Gure esperientziak partekatuz

Kuban asko ikasteko aukera izan genuen, baina Euskal Herritik Hik Hasik antolatutako bidaian joan zirenek ere, euren ekarpen xumea egin zuten. *Pedagogia 2009* batzarrean, Euskal Herriko hiru ponentzia aurkeztu ziren: "Ahots-heziketa Euskal Herriko haur abesbatzetan", "Euskal ondare kulturalaren transmisioa eskolan" eta "Euskal Herriko haur eskolen kalitatea (0-3 urte) eta haurraren esplorazioa" izenekoak, hain zuzen ere.

Carmen de las Cuevas Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak aurkeztu zuen "Ahots-heziketa Euskal Herriko haur abesbatzetan" izeneko hitzaldia. Euskal Herriko bost haur abesbatzetan



egindako ikerketaren emaitzen berri eman zuen. Zehazki, haur horiei eskaintzen zaien ahots-prestakuntza aztertu dute ikerketa horretan, eta lan horrek lotura zuzena du aurrez Euskal He-

rriko Unibertsitateko irakasle talde batek egindako "Euskal abesbatzen harrobia: musika heziketa formala eta ez formalaren artean" ikerketarekin. Ikerketa horretan aztertutako lau abesbatzez gain, Easo Abesbatzan hauren ahots-prestakuntza nola egiten den jakiteko helburuz eta gainerakoekin alderatzeko helburuz egindako inkesta gaineratu diote oraingoan. Oinarrikoa da hauren eta nerabeen ahotsen prestakuntza egokirako ahotsen selekzioa nola egiten den kontuan hartzea eta musika instituzioetan ahotsaren prestakuntza nola egiten den kontuan hartzea. Batez ere, Easo Abesbatzak dituen bi haur abesbatzetan egiten duen prestakuntza eskaintzan oinarritu da lana.

Alexander Barandiaran HUHEZIKO irakasleak aurkeztutako ponentziaren izenburua "Euskal Herriko haur es-





kolen kalitatea (0-3 urte) eta haurren esplorazioa” izan zen. Esan zuenez, Euskal Herriko errealitateak, haurren garapenerako familiaz gain, 0-3 urte bitarteko haur eskolak kontuan hartu behar direla erakusten du, gero eta haur gehiago joaten direlako horietara. Euskal Herrian haur eskolen kalitatea ezagutzeko eta haurren esplorazio gaitasuna aztertzeko egindako ikerketa eman zuen ezagutzera Barandiaranek. 62 ikasgela aztertu zituzten, beste hainbeste irakasle eta 0-3 urte bitarteko 895 haur. Beraz, ikasgela horietako kalitatea ebaluatu zen, eta baita haur horien esplorazio maila ere. Emaitzek agerian utzi zuten hobekuntza beharrezkoa dela baina ondorio nagusia, haur eskolen kalitateak haurren esploraziorako eragina duela jokaeran izan zen. Familian bezala, haurrak hezitzailearekin sortzen duen harreman afektiboa oinarritzkoa da haurren garapenerako. Helduak duen jarrerak berebiziko garrantzia du zentzu horretan, beraz giza harremanak oso garrantzitsuak dira haurren garapen integralari begira.

Azkenik, Hik Hasiren izenean Joxe Mari Auzmendik “Euskal ondare kulturalaren transmisioa eskolan” ponentzia aurkeztu zuen. Euskal curriculumak euskal kulturaren transmisiorako duen funtzioa nabarmendu zuen eta euskara mendeetan zehar eragina galtzen joan den arren, azken 50 urteetan gure hizkuntza berreskuratzeko egindako lana azpimarratu zuen, baita lan horretan ikastolek izan duten egitekoa ere. Euskarak bizirik segi behar badu hezkuntzan hizkuntza nagusia izatea beharrezkoa dela adierazi zuen eta euskal curriculumaren sorreraz hitz egin zuen.



Eskoletara bisitak

Kubako eskolak Herriarekiko maitasuna sortzeko espazioak

Pedagogia 2009 batzarrak, hainbat eskola bisitatzeko aukera eman zigun, Haur Hezkuntzatik hasi eta Lanbide Heziketaraino. Eskola batzuk arruntak ziren, eta beste batzuk espezializatuak, kirolatan, esate baterako. Habanan, berriz, museo-ikasgelak izeneko esperientzia abian dute. Hiriko hainbat museotan ikasgelak atondu dituzte ikasleek bertan ikas dezaten; eskola bateko ikasgela bat hartu eta denbora batez, museora eramaten dute. Era horretan, ikasleek historia eta artea gertutik ezagutzeko aukera dute, eta gustora egoten dira eskolaz kanpoko espazioan.

Bisitatu genituen eskola guztietan ongi-etorri beroa eskaini ziguten eta instalakuntza guztiak ikusteko aukera izan genuen.

Orohar, Kubako eskoletako materiala zaharra da, baina oso ongi zaindua dute guztia. Eskolak txukunak dira eta bisitariak, kutsu politikoa duten horma-irudi eta kartelak ikusten ditu nonahi. Ernesto Guevara *Cheren* irudiak eta Fidel Castroren edota Raul Castroren irudiak eskola gehienetan ikus daitezke. Kubako banderak oso ohikoak dira eta baita aberriarekiko maitasuna bultzatzeko helburua duten era guztietako afixak ere. Nazio nortasuna bultzatzeari garrantzi handia ematen diote, eta eskola leku egokia da herriarekiko konpromisoa eta maitasuna sustatzeko. Hemen dituzue eskoletako argazki batzuk.

Museo-ikasgelak:





Eskolak:




claudio naranjo

ELKARRIZKETA

Psikiatra. SAT programaren sortzailea.

// Gaur egun, hezkuntza, leku
beldurgarria da alaitasunarentzat //



claudio naranjo

E

// Hezkuntzak krisia bizi duela edonork ikus dezake, egunkarietan irakur daiteke uneoro. Gazteek erakutsi dute ez dutela hezkuntza gisa eskaintzen zaiena onartzen. Horren kontrako erresistentzia egiten dute eta ez dirudi interes handirik dutenik, edo hori onartzeko gogo handirik dutenik. Badirudi agintariak definitzen duten norabidean heziak izateari uko egiten diotela.

//

Claudio Naranjok psikiatria ikasketak egin zituen Txilen, haren jaioterrian, eta ondoren, Berkeleyrako bidea hartu zuen. Han Esalen Institutuko lantegiak gidatzen hasi zen eta azkenean, Fritz Perlsen hiru ondorengoetako bat bihurtu zen. Gestalt terapiaren oinarrituta, SAT Institutuan esku hartu zuen eta European Gestalt terapiaren gaineko edota Eneagramaren aplikazioaren gaineko tailerrek eskaintzen hasi zen. SAT, pertsonaren heziketa harmonikoa helburu duen ikaskuntza prozesu integrala da. Irakasleentzako laguntza programa da, norbere burua eta besteak hobeto ezagutzera bideratzen da, eta helburu nagusia irakasleei tresna egokiak eskaintzea da. Claudio Naranjok berak sortu zuen SAT programa, Berkeleyn, 70. hamarkadan, eta 90. hamarkadaren amaieratik aurrera, hainbat herrialdetako hezkuntza sistemetan eragiten saiatu da.

Hezkuntzarekin kritikoa da Claudio Naranjo. Hezkuntza berriro definitu beharra ikusten du, bestelako esanahia izan dezan. Hezkuntzak krisia bizi duela edonork ikus dezakeela uste du, suntsitzailea dela dio, eta hezitzaile gisa trebatu diren pertsonak ezin dutela hori ikusi. Naranjoren ustez, hezkuntza leku beldurgarria da alaitasunarentzat, eta irakasleek ez dute ulertzen hurrek zorionsuak izan behar dutela. Pertsonak, langile masa baten zati izateko, langile obedienteak izateko prestatzen gaituztela dio, eta, komunitateak, politikariak euren programetan hezkuntzaren garrantzia kontuan hartzera bultzatu behar dituela. Sevillan abenduan izan zen "Psikologia eta Eneatipoen transformazioa" izeneko simposiumean izan zen Claudio Naranjo, eta Hik Hasik Iñigo Unanue IMHko dinamizatzailaren bidez izan zuen hari elkarrizketa egiteko aukera.



Zure liburu baten izenburuan diozun modura, beharrezkoa al da hezkuntza aldatzea mundua aldatzeko?

Jakina. Mundua aldatzeko era bakarra pertsona askoren kontzientzian aldaketa bultzatzea da; ziur naiz. Guztia buruaren atzetik doa, geure portaera geure gogoaren arabera da, eta munduaren portaera haren gogoaren arabera da. Beraz, guztion burua hobetu behar dugu, eta ez dut uste hori egiteko gai den erlijiorik dagoenik, zeren pertsonak esaerak dioten bezalakokak dira: asko dira deia jasotzen dutenak, baina gutxi aukeratuak. Norberaren burua hobetzeko, lan handia egin behar da. Diziiplina behar da, eta aukerak behar dira, laguntza behar da, denbora behar da. Ez zait iruditzen psikoterapiak pertsonen kontzientzia asko hobetuko duenik, prozesu zaila baita eta, gaur egun, pertsonak ezin dute psikoterapiaren kostua ordaindu... Dena oso garestia da. Psikoterapeutek ere bizi behar dute, baina bezeroak gero eta harrapatuago daude lansariak gero eta baxuagoak diren mundu honetan... Pertsonak implizituki esklabo bihurtzen dituzten lanak dira, non ordu asko eta asko lan egin behar den gaurko munduan biziraun ahal izateko.

Beraz, uste dut lan hori soilik hezkuntzak egin dezakeela. Haurtzaro goiztiarrean kontzientziaren degradazioari aurre har dakiok. Bereziki, hezkuntzak gaur egun eskaintzen diguna gerarazi behar dugu. Eta hori, nik ikusten dudanez, gauza zurruna da, pertsonen hazkuntzan inolako eraginik ez duen informazio sinplea besterik ez. Hazkuntza behar dugu; pertsonen bu-

ruak sakonagoak izatea eta pertsonen euren burua topatzea behar dugu. Pertsonak zoriontsuak izan daitezela gizarantz zoriontsu bat lortu aurretik.

Hezkuntza berriro definitu behar da. Berriro definitu, bestelako esanahia izateko. Esanahia, ez soilik jarraibideak jartzeari dagokionez, baizik eta pertsonak izaki oso gisa garatzen laguntzeko esanahia. Bihotza duten pertsonak, eta sena haiengan integratuta duten pertsonak, zeren berezko jakituria dugu, eta hori gabe ez gara osoak, ez gaude osasuntsu.

Aipatu izan duzu gure hezkuntza zentzugabea dela eta hezkuntza formala eta tradizionala denbora galera dela. Horrez gain, hezkuntzak krisia bizi duela diozu...

Bai. Eta adierazpen horiek ez ditut nik soilik baieztatzen. Hezkuntzak krisia bizi duela edonork ikus dezake, egunkarietan irakur daiteke uneoro. Gazteek erakutsi dute ez dutela hezkuntza gisa eskaintzen zaiena onartzen. Horren kontrako erresistentzia

egiten dute eta ez dirudi interes handirik dutenik, edo hori onartzeko gogo handirik dutenik. Badirudi agintariak definitzen duten norabidean heziak izateari uko egiten diotela.

Hezkuntza, ezagutzen dugun moduan galera dela Ivan Illich-ek esan zuen, era zentzudunean. Hark "deschooling"-aren (deseskolatzea) proposamena erabili zuen: uste zuen pertsonak beren bizitzan denbora asko sistema autoritario batean leloen moduan tratatuak zirela, eta familiengandik eta eguneroko bizimodutik bananduak izatera behartuta zeudela, eta horretara behartuta egongo ez balira askoz hobeto egongo lirakeela.

Nik uste dut hezkuntza oso suntsitzailea dela, baina hezitzaile gisa trebatu diren pertsonak ezin dutela hori ikusi. Hain zuzen ere, prestakuntza horren bidez, gauzak tradizioak nahi duen era edo sistemak nahi duen erara ikusteko prestakuntza jaso dutelako.

Dugun buru mota irauarazteko diseinatu da hezkuntza, eta okerreko uste batean oinarritzen da: dugun buru

mota zerbait ona da. Ez du kontuan hartzen, dugun buru mota hori dela munduaren benetako arazoa. Gu gara munduaren arazoa.

Hezkuntzaren helburuak ez luke gure kontzientzia arruntaren erreproduktzioa izan behar. Gizadiaren kontzientzia hala-holakoaren erreproduktzioa. Baina bai, bestelako zerbait egitea gu pertsona hobekitzeko.

Eskolan "holismoa"ren beharra proposatzen duzu. Azalduko al zeniguke kontzeptu hori?

Holismoak esan nahi du garen guztia heztea. Beste hitz batzuetan: heziketa osoa izatea. Ez soilik heziketa intelektuala. Gure maila guztiak heztea. Gorputza, emozioak eta adimena gara... eta horiek guztiak baino sakonagoa den zerbait. Tradizionalki "espiritu" deitu izan den zerbait. Eta, gaur egun, alderdi transpersonala deitzen dena. Heziketa fisikoa jaso beharko genuke, heziketa emozionala jaso beharko genuke, eta, hala deitu nahi izanez gero, bihotzeko heziketa ere bai. Heziketa intelektuala jasotzen dugu, baina soilik kanpoko munduaren gainean irakasten saiatzen dira. Eta hori barne komunduari buruz gehiago irakasteko erabili beharko litzateke. Hori guztia motz gelditzen da kontzientzia dei dezakegunarekin alderatuta. Gaur egun ez dugu kontzientziaren heziketarik. Pertsona askok ez dakite kontzientzia deitzen den eta behatu eta garatu behar den zerbait existitzen denik ere. Pertsona gehienek ez dakite euren bizitza espeteratutako bizitza baten antzekoa dela. Oso muga estuen barnean garatzen den bizitza da, baina pertsonak hortik aska daitezke. Haien buruak aska daitezke, euren esperientzia eremua zabaltzeko. Eta gauzen ikuspegi zabalagoa izateko.

Giza garapenerako batez ere intelektuala izango ez den heziketa behar dugula diozu, ez dadila informazioa transmititzera mugatu eta nagusitasun afektiboa izan dezala, ez dadila izan





E

// Nik uste dut hezkuntza oso suntsitzailea dela, baina hezitzaile gisa trebatu diren pertsonak ezin dutela hori ikusi. Hain zuzen ere, prestakuntza horren bidez burua jan dietelako eta gauzak tradizioak nahi duen erara edo sistemak nahi duen erara ikusteko prestakuntza jaso dutelako. Dugun buru mota iraunarazteko diseinatu da hezkuntza, eta okerreko uste batean oinarritzen da: dugun buru mota zerbait ona da

obedientziarako entrenamendua, eta gizakiarengana izaki oso gisa bideratu dadila.

Hori da zehazki esan dudana, zuk obedientiaren alderdia gaineratu diozun arren. Uste dut garrantzitsua dela hezkuntza zein puntutaraino autoritarioa den begiratzea, zeren hain ohituta gaude den eran ikustera, ez baitugu ikusten obedientiara bideratutako heziketa dela. Pertsonen askatasunean esku hartzen duen heziketa dela.

Hala ere, demokrazian sinesten badugu, gizaki askeen garapenaren laguntzari arreta eskaini behar diogu. Bestela, demokrazia etiketa hutsa izango da, iruzurra. Demokraten heziketarik gabeko demokrazia, iruzur moduko bat da. Pertsonak diren eran izaten ikasi behar dute, besteekin egonez, eta besteekin era jatorrean izan behar dituzte harremanak.

Hezkuntzak nola harmoniza ditzake garunaren hiru zatia: arrazoia, emozioak eta sena?

Bi eratarata, esango nuke. Lehenik, horietako bakoitzari dagokion espazioa eskainiz. Ez egin beste guztia estaltzeko moduko gehiegizko eskaera intelektualik. Horrek ez dio espaziorik uzten sentimenduen edo harremanen bizitzari... Eta bizitzen ikasteari.

Sena aipatu dugu, eta nik sentitzen dut heziketak, alde horretatik, akats baten kontra joan behar duela. Gure zibilizazioaren zati den eta hedatuta dagoen gaixotasun moduko baten kontra. Zibilizazioa (duela sei mila urte gutxi gorabehera) naturaren eta barne naturaren kontra altxatu zen. Zibilizazioak natura menderatu nahi du. Eta, pentsatzen da, guk geuk geure burua mende-

ratu behar dugula. Hori lortzeko otzandu gaituzte. Ez gaude gure senarekin harremanetan, geure sen osasuntsuarekin harremanetan. Esan dezakegu ez gaudela gure barneko haurrarekin harremanetan. Haurraren naturaltasuna lurperatu dugu, eta baita dugun sen osasuntsuaren naturaltasuna ere.

Beraz, hezkuntzaren zati batek gaur egun psikoterapiaren lana dena txertatu behar du. Psikoterapeutek giza sufrimendua baretzen dute, alde horretatik errepresioa baretuz. Pertsonak nahi dutena jakiten laguntzen diete, eta oinarritzko beharrak eta desioak izateko eskubidea dutela sentitzen laguntzen diete.

Geuk, kultura gisa, geure beharrak eta desioak kriminalizatu ditugu, errepresioak gara. Eta hezkuntza autoritarioa da, hori betikotzen duen neurrian. Guztiak bare eta isilik egonazten ditu. Arau batzuekiko esaneko, esanekoegi, gure gizatasuna pobretzeraino.

Beraz, oinarrian hau esaten ari naiz: gizaki oso bihurtzeko era, gure bizitzako alor bakoitzarentzat espazioa izatean datza.

Bigarrenik: atentzioaren edo neutraltasunaren auzia. Meditazio hitza ere erabil daiteke. Norberaren burua leku neutral gisa ikusteko gai izatea. Hori ezohikoa da eta gaur egun ez da irakasten, tradizio espiritualetan izan ezik. Dena den, konturatzea harmoniarako oinarria da. Harmonia eskaintzen duen alderdia. Konturatzeak, gatazkak konpontzea ahalbidetzen du. Kontziente ez garenean, konturatzen ez garenean, gure alderdiak borrokan daude, eta pertsonaitsuak iluntasunean elkarri kolpeka ibiltzea bezala da. Argia dagoenean, gure alderdi guztiak lerrokatu egiten dira. Berez.

Beraz, hezkuntzaren zati batek pertsonak une horretan presente egoten erakutsi beharko lieke. Ez soilik horri edo besteari arreta eskainiz, baizik eta mementoko esperientziari arreta eskainiz. Barnean gertatzen ari denaz konturatzea, beste hitz batzuetan, jabetzeko gai izatea. Eta ez robot bihurtzea.



Nola ikusten duzu maitasunean onarritutako edo maitasunera bideratutako heziketa?

Modurik sinpleenean erantzungo dizut: bihotz ona izatean datza. Edo adeitasuna izatean. Galdera aldatu egingen da: nola hezi pertsonak onak izan daitezen, ez dezaten, berez, erresuminik izan, ez daitezen mendekatiak izan edo ez daitezen besteekin haserre egon. Gaur, oso ongi dakigu onginahi hori ezin dela soilik asmo onekin edo sermoi edo idealen bidez lortu.


Psikologia pixka bat behar da. Gaur egungo garapen psikologikoak gorrotoa gaixotasun bat dela jakiteko bidea ematen du. Gure haurtzaroan ezarritako zerbait da. Eta ezaba daiteke, ulermen egokiaren bidez. Batzuk besteekin haserre gaude, berez, harremana izan genuen lehen pertsonekin, hau da, gure gurasoekin, haserre gaudelako. Eta gurasoekiko haserre, nahiz eta haien borondatea ona izan eta intentzio onenak eduki, haiengandik jaso dugun tratatu bortitzari ematen diogun erantzun naturala da. Hitz batean, geure kultura-

ren, geure zibilizazioaren isla garelako. Haiiek gurasoak izan zituzten, eta guraso horiek, beste guraso batzuk. Beraz, badirudi guztiok gure belaunaldiz belaunaldi pasatzen den gaixotasun baten eramaileak. Besteekin haserre gaude, Freudek erakutsi duen moduan, funtsean gure gurasoekin haserre gaudelako. Gurasoekin dugun harremanean zerbait konpondu behar da. Hori, hezkuntzan txerta litekeen esku hartze terapeutikoaren antzeko zerbait da. Behintzat, nerabezaroan, atzera begiratzeko nahiko bizitza badenean.

Maitasunaren hezkuntzari buruz esan daitekeen gauza bat da hori. Baina nik ikusten dut maitasuna ez dela gauza bakar bat, hiru gauza baizik. Maitasun era bat ontasuna da, bihotz ona izatea. Maitasunaren beste forma bat mirespena edo begirunea da. Eta maitasun era hori ere garrantzitsua da, nahiko begirunerik ez badago, bizitza asko pobretzen delako. Pertsonak estimatzen ez baditugu, pertsonak interferentzia bihurtzen dira. Ez bagara gauzei garrantz begiratzeko behar adina txiki egi-

ten, ez dugu gauzen alde miragarria ikusiko. Gaur egun jendeak hauxe esan nahi du: ikus ezazu zeinen handia naizen. Eta hori negozio txarra da. Askoz ere hobea da besteen handitasuna ikustea.

Eta hirugarren bide bat dago, maitasunaren hirugarren era bat: alaitasuna maitasunaren alderdia da. Pertsona gehienek arazoak dituzte alaitasunarekin, dibertsioarekin, eta gehienek euren alaitasuna erreprimitzen ikasi dute. Alaitasuna gutxien ikasi dute, eta beste gogoeta batzuen atzetik jartzen. Askotan komenentzien, errekonozimenduaren edo harrokeriaren atzetik jarri izan da, horrela, behin eta berriz. Maitatua izatearen desioa, besteen laztanak jasotzea edo beste batzuen erakarpentza erromantikoa ere, horien atzetik jarri dira. Gozatzeko nahikoa gaitasunik ez dagoenean, bizitza erlijiosoak, debozio bizitzak ere, ezin du arrakastarik izan. Alaitasunak eta gozamenak gure ekintza guztietan presente egon behar dute. Eta pertsona gehienak ez dira konturatzen alaitasunaren atal ho-



claudio naranjo

E

// Hezkuntzak pertsonak erosteko eta saltzeko prestatzen ditu, langile masa baten zati izateko, langile obedienteak izateko. Alderdi praktikoari eta funtzionalari garrantzi handiagoa ematen zaio giza garapenari baino. Eta horrek duen azalpen bakarra da, sistemak horretarako interesa duela eta politikariei horrela izatea interesatzen zaiela.

//

ri galdu egin dutela. Alaitasuna, musikaren bidez, dantzaren bidez, kutsaduraren bidez, balioespen egokiaren bidez, duen garrantziaren errekonozimenduaren bidez landu behar da. Gaur egun, hezkuntza, leku beldurgarria da alaitasunarentzat. Irakasleek ere ez dute ulertzen haurrek zoriontsuak izan behar dutela, eta ez dute ulertzen heztea besteak zoriontsu egiten saiatzea dela. Hezkuntzak gogorra izan behar duela suposatzen da...

Baina, gazteei ematen zaien hezkuntza hobetzea lan munduan abantaila gehiagorekin sartzarekin nahasten da, arrakastarik handiena izan dezaten.

Hori egia handia da, eta nik askotan esan dut, hezkuntza, sistema militarren eta sistema industrialaren bazkide ikusezina dela. Hezkuntzak pertsonak erosteko eta saltzeko prestatzen ditu, langile masa baten zati izateko, langile obedienteak izateko. Alderdi praktikoari eta funtzionalari garrantzi handiagoa ematen zaio giza garapenari baino. Eta horrek duen azalpen bakarra da,

sistemak horretarako interesa duela eta politikariei horrela izatea interesatzen zaiela.

Batzuetan esan izan dut pertsonen ez zaiela azterketak gainditzen baino ezer askorik gehiago irakasten. Ez da jakintzarik irakasten. Ezta ulerkuntzarik ere. Eta azterketak gainditzea, informazioa errepikatzea da, batez ere. Eta tontakeria da, krimena ere bai zenbait kasutan. Pertsonen arretra hartzea azterketak gainditzen irakasteko... hori negozio mundurako, lan mundurako bidaia-txartelaren antzekoa da. Bidaia-txartel horrek pertsona batzuei pasatzen uzten die, eta beste batzuei sarrera galarazten die eta diskriminatu egiten ditu. Badirudi justizia kontua dela, baina ez da justizia kontua. Kontuan hartu beharrekoa hau da: etxeko bizimodu ikasketekin zenbateraino batera daitekeen. Gurasoak ere zoriontsuak dira euren seme-alabei azterketak gainditzen irakasten zaienean. Eta ez dira konturatzen, hori beste ezer baino gehiago desiratuta, helburu horretara haien arimaren ontasunera baino bideratuago daudela.



Zein izan liteke eskola gazteen interesekoa ez izatearen arrazoia?

Nik uste dut gazteak oso pertzeptiboak direla, eta, haientzat, bistakoa da hezkuntzak biltzen duenak euren bizitzan garrantzi txikia duela. Hezkuntza oso zaharkitua dago. Nik batzuetan esaten dut pertsonak hondarra jatera behartzea bezalakoa dela, eta horrek ez du elikatzen. Gai hori Mundu bateratu baterako pertsona osoaren hezkuntza izeneko liburuaren kapitulu batean aztertu dut, baina luze egia litzateke horretan sartzea.

Amari dezagun mezu positiboa batekin. Zeren, erresistentzien gainera, hezkuntza gure itxaropenik onena dela diozu.

Bai. Horixe da mezu positiboa, itxaropena. Baina ez dugu itxaropen handirik izan behar, horrek ez diezagun erresistentzia horien kontra borrokatzea eragotzi. Hezkuntza aldatzea maila guztietara iritsiko litzateke. Irakasleek hezkuntza berria nahi dutela pentsa dezake norbaitek, eta hori ez da egia. Badira hezkuntzarekin nazkatuta dauden irakasleak, erreta daudenak. Eta hainbeste denboraz agonia hori bizi izanak bokazioa galarazi die. Soilik biziraun nahi dute. Hezkuntza arloko politikariek, zuzendariek eta hezkuntza politikak ezartzen dituztenek... gobernuaren aginduak betetzen dituzte. Eta gobernuak ez dute gauza handirik egin komunitatearen kexuen aurrean eta hezkuntza krisiari buruzko kritiken aurrean. Eskola gehiago, lansari altuagoak eta zenbait gairen inguruan ikasteko presio handiagoa behar eta nahi den galdetzen dute, baina, inoiz ez dute galdere zuzen egiten, hezkuntzaren kontzeptu tradizionala kolokan jarrita.

Gobernuak, gaur egun, nazioarteko politiketara lotuta daude. Esan dezakegu bere arauak dituen negozio inperio handi baten ingudearen azpian gaudela. Globalizatutako munduan, haien politika ekonomikoek dena menperatu dute, eta hezkuntza beste negozio bat bihurtu da. Gauza asko pribatizazio terminoetan esaten dira, ja-



betza pribatuak hezkuntza kontrola dezan. Nik uste dut hori alferrikako norabidean doala, benetan hezkuntza aldatu nahi badugu. Uste dut gure itxaropenak komunitatearen ahotsaren baitan egon behar duela. Komunitateak politikariak euren programetan hezkuntzaren garrantzia kontuan hartzea bultzatu behar ditu. Ez hezkuntza gehiago orain dugun eran, baizik eta hezkuntza forma berri bat.

Mundu berri bat behar dugu, eta, horretarako, ezinbestekoa da pertsona mota berri bat izatea. San Paulok esaten zuen bezala, gizaki berri bat. Gizaki zaharra atzean utzita, ez soilik zaharkitu-

tako nortasunaren zentzuan, baizik eta zibilizazioaren historiaren bidez ezaugutu dugun gizakia. Guztiz berria izan go den zerbaiterako prest egon behar dugu. Eta nik uste dut hezkuntza dela Atea. Ate bakarra.

Gaur egun Claudio Naranjo Fundazioak Euskal Herrian Francis Elizaldekin koordinatutako saila du. Fundazioari buruzko informazioa atari honetan topatuko duzue:

<http://fundacionclaudionaranjo.com>

Ikasbide ikastolako lantegiak Mundua ikastolara gerturatzeko ahalegina

Urte asko daramate Donostiako Ikasbide ikastolan Haur Hezkuntzan lantegiak antolatzen, eta haurren gurasoek, senideek, lagunek eta ezagunek hartu izan dute parte jarduera horietan. Haurren heziketarako, familia eta eskola gertu egotea garrantziko jotzen dute Ikasbiden, eta lantegiak aitzakia ezin hobea dira helburu hori lortzeko, harreman horiek sendotzen laguntzen baitute.

Ikasturte hasierako bileran planteatzen diete gurasoei euren parte hartzearen garrantzia, eta bakoitzak zer egingo lukeen pentsatzen joateko esaten diete. Haien lanbidearekin lotura duen zerbait izan daiteke, edo, besterik gabe, gustuko duten edozer. Gurasoei garbi esaten diete helburua ez dela zerbait zoragarria edo oso konplikatu egitea, ekintza hori burutzeko egiten duten bidea baita garrantzitsuena, eta, jakina, ongi pasatzea.

Parte hartzea zabala da eta azken bi ikasturteetan ia guraso guztiek hartu dute parte lantegietan. Batzuetan, gaiarekin lotzen dute, eta, beste batzuetan, gurasoak dira euren ekimenez gauzak planteatzen dituztenak. Lantegietan errezetak egin ditzakete; edo, beste batzuetan, lantzen ari diren gaiaren arabera joaten zaizkie gurasoak bisitan: gorputza lantzen ari zirenean, adibidez, erietxean lan egiten duten hainbat gurasok zer lan egiten zuten azaldu zieten ikasleei...

Sahara ezagutzeko aukera

Lantegi batzuk laburrak izaten dira,



baina beste batzuk luzatu egiten dira eta hori izan zen, hain zuzen ere, Saharako esperientziaren kasua. Ikasle baten izebak bere burua eskaini zuen iaz Saharari buruzko lantegia egiteko eta herri horren hainbat alderdi lantzeko: historia, geografia, bizimodua, hezkuntza, elikadura eta gastronomia, eguraldia, eraikuntzak, jostailuak... aztertutako zintzen. Eta, urtero Euskal Herriari Sahararentzat janaria biltzeko antolatzen den kanpainarekin bat eginda, ikastolan jarduera hori antolatu zuten Arantza Aierdi eta Ana Gorrotxategi irakasleek Haur Hezkuntzako 3. mailako ikasleekin.

Pertsona hori ikasgelara joan aurretik, interesgune hori landu zuten ikasleekin. Eta, horretarako, lau urte lehenago beste ikasle batzuekin landu zuten Saharari buruzko materiala baliatu zu-

ten: bandera nolakoa den, kokapena, basamortua, hango haurrak, gerra... aztertu zituzten. Ondoren, izeba etorri zenean, argazki batzuk erakutsi zizkien lehendabizi. Baina, geroago, hango emakumeen eta gizonen jantziak eraman zituen, eta irakasleek jantzi zituzten, haurrek ikus zituzten. Saharan bertan egindako eskumuturrekoak eta lepokoak ere eraman zituen, eta ikasle bakoitzari bat oparitu zion.

Baina bisita horrekin hasitako jarduerak jarraipena izan zuen gerora ere. Hiruhileko osoa eman zuten ikasleek jarduera hori lantzen. Irakasleek, Saharako ipuin herrikoiak kontatu zizkieten haurrei, eta, janariaren gaiari helduta, Euskal Herriko eta Saharako elikaduraren artean dauden aldeak landu zituzten. Gela sukalde bihurtu zuten, eta kus-kusa eta tea prestatu eta dastatu zi-

tuzten. Postre gisa, berriz, datilak jan zituzten egun hartan.

Amaitzeko, gutuna idatzi zieten haur guztiek sahararrei, eta jasotako opariengatik eskerrak ematearekin batera, haien herriari eta kulturari buruz asko ikasi zutela adierazi zieten. Gainera, ikasleek opari bat bidali nahi zieten hango haurrei eta, eskulanak egitea oso gustuko dutela bazekitenez, kaxa eder batean ikasleek ekarritako gauzak sartu zituzten: ilerako gomak, ile-orratzak, margoak, ipuinak... Eta horiek guztiak Saharara bidali zituzten, taldeko argazkiarekin batera.

Esperientzia hor amaitu zen Ikasbideko ikasleentzat. Baina, egun batean, ustekabean, eskutitza jaso zuten Sahararik, haurren argazkiekin eta haiek egindako marrazkiekin batera. Haurrentzat oso polita izan zen guztia.



Eta, orokorrean, haurrak gustura egoten dira lantegietan, naturaltasunez hartzen dituzte. Urduri ere egoten dira, dena den, haien senideek ikastolara gerturatu behar dutenean. Senideak ere urduri egoten dira, gauzak behar den bezala aterako diren pentsatzen,

edo hurrek jardura gustuko izango ote duten pentsatzen... baina, lantegia abiatzen denean, berehala desagertzen dira kezka horiek. Jardura horietan, irakasleek ez dute parte hartze aktiborik, baina beharrezkoa denean laguntza eskaintzen dute.



Bihurrikerien koaderno

Nork esan du bihurrikerien bitartez ikasten ez denik?

Hurrek bihurrikeriak egiten dituztenean, errieta jasotzen dute maiz ordainetan, baina bihurrikerien bidez ere ikas daiteke. Ez da Ameriketako unibertsitatearen batean egindako ikerketa batek utzitako datua, Arrankudiagako eskolan egindako esperientziak erakutsi duena baizik. Lehen Hezkuntzako lehen zikloko hurrek beste pauso bat eman dute irakurtzeko eta idazteko prozesuan, hurrek, gurasoek eta irakasleek egindako bihurrikeriak bilduz. Eskola Txikien III. Topaketan aurkeztu zuten egitasmoa.

Eskola txikia da Arrankudiagako eskola, eta proiektuetan oinarrituta egiten dute lan, beti. Haurrengandik gertu dauden gaiak lantzen dituzte, askotan ikasleek beraiek proposatuta. Izan ere, irakasleen iritziz, garrantzitsuena, ikasleek gai zehatzak landu beharra sentitzea da, eta gai ugari lantzen dituzte era horretara.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haur guztiak gela berean dabilta Arrankudiagan. Joan den ikasturtean, bost haur zeuden lehenengo mailan, eta 12, bigarren mailan. Bigarren mailakoek ez bezala, lehenengo mailako hurrek ez zekiten ez irakurtzen, ez eta idazten ere. Irakasleek aitzakia behar zuten haur horiek idazten eta irakurtzen has zitezen, eta bigarren mailakoek idazketa prozesua hobe zezaten, eta aitzakia hori bihurrikeriak izan zitezkeela bururatu zitzairen. Hurrek gustuko dute bihurrikeriak egitea, eta izugarri



gustatzen zaie ondoren bihurrikeria horiek kontatzea.

Idazketa prozesua

Hasieran, asko hitz egin zuten gelan bihurrikeriei buruz, eta haur bakoitzak bihurrikeriaren bat kontatu zuen. Lehenengo mailakoek beren erara idazteko esan zieten, eta, ondoren, irakurtzeko. Gero, irakasleek beheko aldean transkripzioa idatzi zuten. Bistakoa zen ez zegoela hizkien kontrolrik, hizki asko jartzen zituztela... Horren ondoren, guztiak (lehenengo mailakoek zein bigarrenengoek) idatzitako bihurrikerien ezaugarriak atera zituzten (noiz egin zuten, non egin zuten...).

Ikasleek beren bihurrikeriak idatzi ondoren, etxean gurasoei euren bihu-

rikeriaren bat kontatzeko eskatu zieten. Bigarren mailakoek, ondoren, bihurrikeria idatzi zuten, aurretik landu zituzten ezaugarriak kontuan hartuta: zer adin zuten gurasoek bihurrikeria egin zutenean, non izan zen, norekin zeuden, zer gertatu zen... Eta lehenengo mailakoek bihurrikeria horren marrazki bat egiteko esan zieten, eta ondoren, gelan kontatzeko. Idatzi ere egin zuten, baina euren erara.

Adibidez, lehenengo mailako haur batek amak egindako bihurrikeria bat idatzi zuen, baina kontrolrik gabe. Ikasle hark bazekien han zer jartzen zuten, baina ezin zen irakurri. Hurrengo egunean, irakurtzeko eskatu zioten; baina ez zuen dena ongi gogoratzen, eta ez zekien irakurtzen. Irakasleek hurrei

lagundu zieten zentzuz idazten, eta horrek hobekuntza handia ekarri zuen. Eta haurrak pozik geratu ziren, idazten zutena irakur zitekeela ikustea garrantzitsua izan baitzen lehenengo mailakoentzat. Bigarren mailakoekin, berriz, testuak hartu zituzten, banatu egin zituzten denek irakurtzeko, eta aztertzeko joan ziren. Hitzetan banaketa landu nahi zuten, eta maiuskulak non jarri... Zalantzei buruz eztabaidatu zuten, eta, ondoren, idatzitakoa hobetu zuten.

Plastika eta matematika

Gero, plastikarekin lotu zuten guztia; ikasleek koadernoak egin zituzten, eta koaderno horietan idatzi zituzten bihurrikeriak. Ikasle bakoitzak, bere bihurrikeriak eta familiakoak bilduta, liburuxka bat egin zuen. Irakasleek ere beren bihurrikeriak idatzi zituzten, eta oso dibertigarria izan zen denentzat. Azkenik, koadernoak etxera eraman zituzten, gordetzeko.

Eta hizkuntzarekin eta plastikarekin batera, matematika ere landu zuten. Bihurrikeria idatzi zutenean, garrantzi handia eman zioten testuetan bihurrikeria hori noiz, zenbat urterekin, egin zuten azaltzeari.

Egun batean, goizean, paper zati bat agertu zen ikasgelako paretan eskegita: paper zati luzea zen, ardatz kronologikoa zuena, eta bi zenbaki besterik ez ziren ikusten: 2.000 eta 2.010. Goizean ikasgelara sartu zirenean eta paper zati ikusi zutenean, haurrak galdetza hasi ziren, zer izango ote zen galdetza. Ondoren, orri bana banatu zieten irakasleek, eta orriotan testu bat ageri zen. Orriaren beheko aldean, gelan agertutako paper zatiak zuen irudiaren antzekoa ageri zen. 2.000tik 2.010era zenbat zenbaki zeudengaldetu zieten ikasleei, eta nola koka zitezkeen horiek marra hartan. Paretako papera ardatz kronologikoa zela ikasi zuten horrela.

Beraz, 2.000tik aurrerako zenbakiak lantzen hasi ziren: zenbakiak ardatz kronologikoan kokatu behar zituzten, eta, besteak beste, segidak nola osatzen diren aztertzeko aukera eman zien horrek.

Horren ondoren, irakasleek koadernoan idatzitako bihurrikeria zenbat urterekin egin zuten galdetu zieten, eta bihurrikeria horiek ere ardatzean kokatzeko eskatu zieten. Hori zailagoa zen, ordea. Horretarako, zer zenbaki, zer

datu behar zituzten pentsatzen hasi ziren, eta noiz jaio zen galdetu zioten irakasleari, zer urtetan zeuden... Bakoitzak bere erara egin zuen kalkulua. Horrela, batuketa landu zuten. Azkenik, gurasoen bihurrikeria ardatz kronologikoan kokatzeko eskatu zieten. Horri buruz testu bat idatzi zuten, eta testu horiekin buruketa bat osatu zuten. Azkenik, nagusiei eman zieten, haiek kalkulatzeko. Amaitzean, datu horiek ardatz kronologikoan kokatu zituzten.



Bullying-aren ezkutuko gakoak bistaratzen



Marisa OTADUY BENGOA eta
Make IRIGOYEN PERURENA
BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK

Bullying-ari buruz ari dira Marisa Otaduy eta Make Irigoyen artikuluan, baina, jakina, hezkidetzaren ikuspegitik. Ikuspegi horretatik, bullying-a, gizarte sexistan gertatzen, sustatzen eta legitimatzen diren indarkeriazko harreman sistematikoen ondorio zuzena dela diote, eta askotan heterosexismoaren legeak ez jarraitzeagatik gertatzen dela, hau da, kasu askoren atzean lesbofobia, transfobia eta homofobia daudela. Horrelakorik gerta ez dadin, gelan esku hartzeko hainbat proposamen egin dituzte.

Gure munduan pertsona guztien eskubideak bermatzeko eta harreman positiboagoak eraikitzeko, bai elkarren artean, bai bestelako bizidunekin, bai planetarekin, zeregin dezente dugu oraindik. Horren adibide dira, hezkuntza-eremuan azken urteotan askoren kezka eta hausnarketagai bihurtu den "bullying"-a edo "berdinen arteko tratu

txarrak".

Zer da bullying-a?

Ingelesetik datorren hitza da eta literalki "harroputz" edo "handiputz" esan nahi du. "Berdinak" diren artean ematen den indarkeria da. Hezkuntza-eremuan, bullying-egoera bat ikasle batek edo talde batek denboran zehar, behin eta berriz, beste ikasle bat ikaratu, iraindu, bakartu edota mehatxatzen duenean gertatzen da; haren gauzak hondatzean edo eraso fisikoak eragiten dizkionean. Bi aldeen arteko botere-harremanak oso ondorio larriak eragiten ditu biktimarengan: hertsura, harremanetarako arazoak, autoestimua baxua, segurtasunik eza, eskola-errendimendu eskasa...

Bullying-aren definizioa hezkidetzaren ikuspegitik osatzen

Sarritan bullying-arekiko interpretazio hau nagusitzen da: erasotzaileek, erasotuek eta inplikaturiko guztiek harreman-arazoak dituzte, eta egoera aldatzeko erantzun eta estrategia indibidualak landu behar dituzte.

Hezkidetzaren ikuspegitik fenomeno hori askoz sakonagoa da: bullying-a gizarte sexistan gertatzen, sustatzen eta legitimatzen diren indarkeriazko harreman sistematikoen ondorio zuzena da. Estereotipoek markatzen dute, kultura guztietan, pertsona batek nolakoa izan behar duen sozialki onartua izateko.

Horrela, bullying fenomenoak, erasotua "behar bezalakoa ez izateagatik" edo susmagarri izateagatik" jasotako diskriminazioan datza. Zergatik? Hete-



rosexismoaren legeak ez jarraitzeagatik: dagokion rol maskulino edo femeninoa ez betetzeagatik, talde dominanteko kide ez izateagatik, edertasun-eredua betetzen ez duen gorputza izateagatik, heterosexuala ez izateagatik... Bullying kasu askoren azpian lesbofobia, transfobia eta homofobia daude, eta hori da seguru aski bullying-aren aurpegirik ezezagunena. Hezitzaileok ezinbesteko dugu errealitate horren garrantziaz kontzientzia hartzea, proposatu ohi ditugun esku-hartzeak benetan eraginkorrak izateko.

Aldaketarako hezkuntza-gakoak:

- BEHATU. Oso garrantzitsua da ikasleen aniztasunaz jabetzea, nola sentitzen diren jakitea eta haien beharrik identifikatzea: ezkutuan dagoena aintzat hartzea, errespetatzea edo kontzientzia zaila baita.

- EZAGUTU. Zer sozializazio-baldintza inposatzen zaizkie neska-ikasle eta mutil-ikasle izateagatik? Zer oztupo

dituzte haien bizi-proiektua eraikitze-ko?

- EKIN. Giza Eskubideen aldarrikapenak hau zehazten du: "pertsona orok bere osotasun pertsonalaren kontrako indarkeriazko egoera edo erasoen aurrean Estatuaren babesa izateko eskubidea du". Ikasleak askatasunez adierazteko eta partaide aktiboak izateko segurtasun guneak sortzea hezitzaileen zeregina da.

- ETA... GALDERAK EGIN. Gure ikasleak irain diskriminatzaileetatik eta homofoboetatik salbu al ditugu? Emakumeak edo gizonak, minusbaliatuak, adinekoak... gutxien dituzten jarretatik babesten al ditugu? Emakume eta gizon-eredu positiboak eta berdintasunezkoak, sexu aukera anitzak, hainbat tipologia fisiko... aurkezten al dizkiegu curriculumean, gelako egunerokotasunean?

Esku-hartze zehatzak:

- Heziketa afektibo-sexuala gure hezkuntza-jardueran barneratzea, giza-sexualitateari buruzko diskurtsoa adierazpen modu guztietan normalizatuz, inolako ierarkiaziorik egin gabe.

- MAITASUNA kontzeptua lantzea, harreman afektiboak eta bikoteko harremanak eraikitzerakoan norberaren zein besteen onarpena, errekonozimendua, errespetua eta askatasunean oinarritzea sustatuz.

- Liburutegian aniztasun afektibo sexualaren inguruko kontsulta-atala sortzea genero-ikuspegia erakusten duten bideoak, artikulatuak, aldizkariak eta abar bilduz.

- Eguneroko bizitzan zein curriculumean emakume- eta gizon-eredu positiboak bistaratzea, genero-estereotipoak betetzen ez dituztenak, hainbat kulturatakoak, hainbat aukera sexualekin...

- Hizkuntza hezkidetzailerak erabiltzea (ahozkoa, idatzia eta ikonografikoa). Horrek errespetuz eta berdintasunez aipatzen ditu emakumeak, gizonak eta pertsona guztiak.

- Ikasle, familia eta ingurukoekin topagunerako eta lankidetzarako espazioak sortzea, tratu txarren inguruko eztabaidak egitea, esku-hartze proposamenak biltzea eta jarduera-protokoloak bateratzea.

Laburbilduz, bullying-aren aurka-ko antidoto gisa, elkarbizitza hezkidetzailerak sustatzea proposatzen dugu. Zer lortzeko?

- Ikasleak beren identitatearekin gustura egotea, harreman sozial eta

afektibo-sexual positiboak eta autonomoak eraikitze konpetenteak izatea.

- Garapen pertsonala eta soziala aldi berean landuz, eremu pribatua eta etxean zein publikoan ongi moldatzen diren pertsona osoak hezteak.

- Bizi-proiektu propioa duten pertsonak izatea, berdintasun harremanak eraikitzen dituztenak, gure munduaren etengabeko hobekuntzan konpromiso eta parte-hartze aktiboa erakusten dutenak.

AZKEN ORDUKO BIBLIOGRAFIA:

PLATERO MÉNDEZ, Raquel y GÓMEZ CETO, Emilio: *Herramientas para combatir el bullying homofóbico*, Talasa ediciones, Madrid, 2007.

EMAKUNDE aldizkaria: *El amor entre mujeres*, Emakunde, Vitoria-Gasteiz, 2008 (72. zenbakia).

SAREAN:

<http://www.zubiakeraikitzen.blogspot.com/>
ZUBIAK ERAIKITZEN HEZKIDETZA TALDEA (ikus: Indarkeriari zero tolerantzia/ Heziketa afektibo-sexuala/ Hezikidetzak).

<http://martxoak8.nireblog.com/cat/harremanak> (ikasleentzat).

<http://www.yogyakartaprinciples.org/> Genero Identitatea eta Sexu-joerarekin lotutako Giza Eskubideen Nazioarteko Legediaren Ezarpenari buruzko Yogyakartako Printzipioak (2006).

<http://tutorgbt.blogspot.com/> (ikasle gay, lesbiana, bisexual eta transexualentzako gunea. Berreziki "Homofobia entre adolescentes" bideoa).



Zer ezaugarri izan beharko lituzke XXI. mendeko Euskal Herriko Hezkuntza Sistema Nazionalak



Galdera horri erantzuten ahalegin-tzeak etorkizunera begira jartzea eskatzen digu ezinbestean, betiere daukagun errealitatek abiatuz, baina baita kolektibo gisa ditugun iguripenetatik ere. Beste modu batera esanda, alde batetik, kokatuta gauden europar testuinguruan XXI. mendeko hezkuntza sistemai eskatzen zaiena kontuan hartuz, eta bestetik, euskal gizarteak behar duen hezkuntzaren eredia aurrez irudikatzen saiatuz.

Testuinguru orokorrari dagokionez, aurrerantzean ere, hezkuntza sistemari berezko gisa ezarritako hiru xedeok hori dirautela dirudi, modu praktikoko batean honelakoak liratekeenak: errealitateari buruzko ezagutzak bereganatuz pertsonaren garapena bultzatzea, sozializatzea eta lanerako prestatzea. Hori erreferenteetako bat bezala hartuz, galderaren bigarren zatia, funtsezkoenari alegia, aurre egiteari ekin behar diogu: etorkizunari begira, nondik abiatzen gara gure gizartearen eskariei erantzun egokia ematera zuzen-



Abel ARIZNABARRETA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

tzen garenean?

Aldaketa handiak gertatzen ari dira azken hamarkadetan munduan eta Euskal Herrian eta gizarte aldaketa azkar horien eta globalizazioaren eta dinamika sozial berrien ondorioz, erronka berriak agertzen zaizkigu (migrazioa, teknologia berriak eta informazio saturazioa, adibidez). Aldi berean, familien tipologia eta ikastetxeekiko ha-

rremanak aldatzen ari dira, baita hezitzaileen zereginak eta formazio-beharrak ere. Egoera horri aurre eginez erantzun egokia eskainiko dion hezkuntza sistema bat asmatzerakoan, hasieratik gainditu beharreko oztopo bat dugu: Euskal Herriak, gaur egun, ez du hezkuntza sistema propiorik. Azken hamarkadetan sistema berri hori eraikitzeko bidean emandako urrats guztiak aintzat hartuz, Hezkuntza Sistema propioa garatu behar dugu.

Zein lirateke Hezkuntza Sistema horren funtsezko ezaugarriak edo oinarriak? Zutabe nagusiak aipatzekoan, Nazio Eztatanda Guneko Hezkuntza Batzordearen ekimenez eta hezkuntzako hainbat eragileren artean osatu eta adostutako Euskal Herriko Oinarriko Hezkuntza Akordioa ardatz baliagarritzat jotzen dugu:

1.- Eskubideetan oinarritutako Hezkuntza sistema.

Hezkuntza ikuskera propio horren

gauzatzean, Euskal Hezkuntza Sistemak, euskal herritar guztiei, nazioarteko oinarritzko eskubideen hitzarmenetan jasotako eskubide unibertsalak aitortzeaz eta bermatzeaz gain, eskubide hauek bere egin beharko lituzke, gure ustez:

- Eskolaren bidez euskalduntzeko (euskaraz ikasteko eta euskaraz bizitzeko) eskubidea.
- Euskal Herriko Curriculum propioaren arabera hezteko eskubidea.
- Parekidetasuna lortzeko didaktikan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea.
- Oinarri demokratikoen arabera antolatutako eta kudeatutako hezkuntza komunitate bateko partaide eraginkorra izateko eskubidea.
- Euskara eta jakintza ardatz izango dituen eta, Euskal Herriaren beharrak asetuko eta bideratuko dituen Euskal Unibertsitate Sistema izateko eskubidea.
- Hezkuntzaren bidez norbere ahalmenak garatzeko eskubidea, pertsona kritiko eta aske izateko bidean.
- Euskal gizartera heldu berriak izan eta Euskal Herriko ikasguneetan sartzen diren etorkinei euren ama hizkuntza eta kultura errespetatuko zaizkienaren eskubide osoa aitortzea eta bermatzea.
- Ikastetxe bakoitzeko hezkuntza komunitateak Hezkuntza Proiektua izateko eta kalitatez garatzeko eskubidea.
- Hori guztia posible izan dadin, Europako hezkuntza esparruan, Euskal Herriak hezkuntza sistema propioa izateko eta arautzeko eskubidea.

2.- Euskal Curriculum oinarritzkoa eta komuna definitzeko eta ezartzeko konpromisoa.

Giza taldeen ezaugarrietako bat kultur ondarearen transmisioa da. Belaunaldi batek hurrengoari hainbat ohi-tura eta ikusmolde, uste-sinesmen eta jokabide transmititzen dizkio. Hezkuntzak, historian zehar eta mundu osoan, zeresanik izan du eginkizun horretan. Eginkizun horren bi alde funtsezko az-

pimarra ditzakegu: batetik, gizakiaren dimentsio soziala erabat garatzea, eta, bestetik, gizabanakoen artean erreferentzia komunitetiko datozen kohesio sozialak ezartzea.

Alde horretatik begiraturaz, Curriculum, hezkuntza praktika gidatzen duten helburu eta edukien arazoizko programazio tekniko hutsa baino askoz gehiago da. Curriculum, gizarte-elkarte batek eskola eremuan dituen gizarte- eta kultur-egitasmo propioen adierazpen gisa uler daiteke.

Baina Curriculum propio hori definitzerakoan, ikuspegi berritzailea, eta etorkizunera begira hezkuntza sistema osoaren berrikuntza orokorra sustatzera zuzendua dagoena planteatu behar dugu; egungo eta bihurtuko euskal gizartearen hainbat beharrezan sozialei irtenbideak eskaintzeko modukoa, alegia. Horregatik, Euskal Curriculum eraikitzerakoan, berreskurapen eta kultur integrazio inklusiboaren eredu arteko uztarketa egiteari ezinbestekoa deritzogu. Zergatik eredu hori? Gure hizkuntza eta kultura asimilazio prozesu baten ondorioz minorizazio egoeran daudenez, horiek mantentzeko eta indartzeko berreskurapen kulturaren eredu hartu dezakegulako abiapuntuztat. Baina etorkizuna eraikitzeko, kultur integrazio inklusiboaren bidea jarraitzea proposatzen dugu; hau da, batasuna eta aniztasuna bateratzen dituen bidea. Planteamendu horrekin landu da oraintsu aurkeztutako Euskal Curriculum, bere inguruan hezkuntzako hainbat eragileren babesa eta aplikatzeko konpromisoa bildu dituen, hain zuzen.

3.- «Hezkuntza Publikoa» kontzeptuaren birdefinizioa.

«Hezkuntza Publikoa», herrien eta herritar guztien garapenerako beharrak asetzen dituen hezkuntza izan behar da, aukera berdintasunean eskubide guztiak ziurtatuko dituen kalitatezko zerbitzua, alegia. Beraz, Euskal hezkuntza publikoa «publiko-herritar» ikuspegiaren kokatzen dugu; hots, komunitateari lotua, hezkuntzan ere de-

Egoera horri aurre eginez erantzun egokia eskainiko dion hezkuntza sistema bat asmatzerakoan, hasieratik gainditu beharrezko oztopo bat dugu: Euskal Herriak, gaur egun, ez du hezkuntza sistema propioa. Azken hamarkadetan sistema berri hori eraikitzeko bidean emandako urrats guztiak aintzat hartuz, Hezkuntza Sistema propioa garatu behar dugu.



mokrazia parte-hartzailea gauzatu nahi baitugu. Horregatik, horren diseinua, antolaketa, planifikazioa, kudeaketa eta garapena botere publikoari eta hezkuntza komunitate osoari dagozkiela deritzogu. Edonola ere, ukaezina da botere publikoek guztion hezkuntza eskubideak bermatzerakoan duten betekizuna. Finantrazioak eta kontrolak, esaterako, publikoak izan beharko lukete; eta hezkuntza publikoaren kudeaketa eraginkorra, gardena eta jarraipen soziala duena. Ikastetxeen titulartateak eta kudeaketak, berriz, horien eta botere publikoen arteko hitzarmenean oinarritutakoak izan beharko lukete.

4.- Eskola-erakunde bakoitzaren autonomiaren eta protagonismoaren aldeko apustua.

Eskubideak berma daitezen, heziketa prozesua hobetzea eta egokitzea izango da eskola-erakunde bakoitzaren egitekoa. Bide horretan ezinbestekotzat jotzen dugu Hezkuntza Proiektu propioa izatea, hezkuntza komunitateko partaide guztiena izango dena eta kudeaketa eta gainbegiratze demokra-



Curriculum propio hori definitzerakoan, ikuspegi berritzailea, eta etorkizunera begira hezkuntza sistema osoaren berrikuntza orokorra sustatzera zuzendua dagoena planteatu behar dugu; egungo eta biharko euskal gizartearen hainbat beharrian sozialei irtenbideak eskaintzeko modukoa, alegia. Horregatik, Euskal Curriculum eraikitzerakoan, berreskurapen eta kultur integrazio inklusiboaren ereduaren arteko uztarketa egiteari ezinbestekoa deritzogu.

tikoak izango dituen.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren oinarritzko zutabe izango dira:

a) Ikasle guztiak euskalduntzeko konpromisoa bere eginaz, hizkuntzen trataerarako proiektu propioa garatzea.

b) Egite pedagogiko koherentea eta herritarren kohesioa lortzeko tresna baliagarria deritzon heinean, Euskal Curriculum garatzeko konpromisoa hartzea.

Bi zutabe horietan oinarritutako Hezkuntza Proiektuaren funtsezko osagaiak izango dira honako hauek ere:

- Ikasleen behar afektiboak eta emozionalak kontuan hartzea.

- Helburua, ikuspegi kritikoa duten herritar autonomoak lortzea izanik, neska-mutilen kontzientzia librea eta kritikoa garatzen laguntzea.

- Menpekotasunean oinarritutako harremanak baztertuz, eskubide berdintasuna helburu izatea, sexuen arte-

ko parekidetasuna lortzeko metodologia didaktiko egokia aplikatuz, eta aukera berdintasuna garatzen duen jendartea lortzen laguntzea.

- Jatorri anitzeko ikasleak, maila sozial eta kultural anitzekoak, hainbat gaitasun eta muga dituztenak testuinguru ahalik eta normalizatuenak partekatuz, elkarrekin aritzea hobestea.

- Ikastetxearen eta hezkuntza komunitatearen bizitza eta harreman sistema dinamiko, parte hartzaile eta demokratikoa bultzatzea.

- Ikastetxe bakoitzaren ibilbidean eta esparru guztietan ematen diren prozesuen, eta batez ere, ikasi eta hezteko prozesuen jarraipena eta ebaluazio sistematikoa aplikatzea, egin beharreko hobekuntzak ezartzeko helburuz.

- Inguruarekin harreman zuzena izatea, ikastetxearen esparru zehatza gaindituz, familiekin, erakunde zein gainerako gizarte eragile ororekin, eskaintzen dituzten aukera hezitzaileez baliatzeko helburuz, harremanetan eta elkarreaginean aritzea.

Horretarako, hezkuntza sistema berriak gaurkoa baino kudeaketa-eredu askoz ere deszentralizatuagoa garatu behar du. Ezinbestekoa da ikastetxe guztiek, arlo guztietan, ahalik eta autonomia maila handiena izatea (antolaketa, hezkuntza- zein ikasketaproiektu eta programazio arloan, hezkuntza-berrikuntzan, giza- zein finantza-baliabideen kudeaketan, ebaluazioan...), baina baita, ikastetxeen alde-tik, autonomia maila hori onartzeak eta kudeatzeko konpromisoa bere egiteak suposatzen duten erantzukizunari aurre egiteko borondate praktikoa agertzea ere.

5.- Hezkuntzaren lehentasun soziala.

Hezkuntzak berebiziko garrantzia du norbanakoaren eta herri baten garapenean, baita gizartearen kohesionatzeko ere. Horregatik guztiagatik, hezkuntzak lehentasun soziala izan behar du, eta baita beharrezkoak dituen baliabideak eta inbertsioak jaso ere. Jakin badakigu inbertsio ekonomiko handie-

nak egiten dituzten sistemak ez direla beti etekin edo emaitza onenak lortzen dituztenak eta hezkuntzaren kalitatea bultzatzen duten faktore eragileenen artean ere, funtsezkoak diren beste asko badaudela; bat geroz hezkuntzako giza baliabide zein baliabide formal eta materialen arrazionalizazioa eta optimizazioa aldarrikatzen dutenekin. Baina uste dugu ez dagoela ukatzerik, gure hezkuntza sistemaren kalitatezko funtzionamendua bermatzeko aurrekontu egokia izatea funtsezko elementua dela.

Non jarri maila egoki hori? Ingurura begiratu, Euskal Herriak gaur egun duen gizarte-garapen mailak eskatzen duen hezkuntza sistema batek behar duen inbertsio ekonomiko Europa naziorik aurreratuenetan egiten ari direnaren parekoa izan behar duela ikusten dugu. Horrek, Barne Produktu Gordinari buruz ari garela, zera esan nahi du: Estatu espainoleko %4,5eko eta Europar Batasuneko %5,1ko batez bestekoa gaindituz, egungo inbertsioak suposatzen duen %3,8tik abiatuz (EAEko datuen arabera), Europa iparraldeko herrialdeetara begiratu behar dugula. Ibilbide luze samar horretan, tarteko erreferentzia izan beharko luke, jada Delors Batzordeak bere garaian gomendio gisa iragarri eta, ondoren, Lisboako Akordioek (2000) 2010. urterako BPGaren %6ra iristeko ezarri zuten konpromisoa. Baina, ikusi ahal izan den bezala, emeki-emeki bada ere, hezkuntzaren finantzaketak pisua galdu du EAEko aurrekontuetan azken urteotan: ez da hori norabide zuzenean goazeneren seinalerik onena.

Amaitzeko, gure herriarentzako zer-nolako hezkuntza sistema nahi dugun eztabaidatzeko eta adosteko unean gaudela uste dugu. Bide horretan eman ditzakegun urratsak, egin ditzakegun ahaleginak bateratzeko garaian, alegia. Besteak beste, Euskal Hezkuntza Sistemaren Legearen inguruko eztabaida abiatzea eta jorratzea.

Argia aldizkariak kaleratzen duen Larrun gehigarriaren 126. zenbakian (2008ko azaroa) argitaratutako testuaren egokitzapena.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

martxoa

berriak

Kooperatiba bakarrean biltzea adostu dute ikastolek

Ikastolen VI. Batzarrean elkartu ziren 91 ikastoletako ordezkariak aho batez onartu zuten "Ikastolak orain eta gero" txostena. Irailaren 27an hasi zuten VI. Batzarra Hendaian, eta orduan ezagutarazi zuten Europako Kooperatiba bihurtzeko eta erakunde bakarrean biltzeko asmoa. VI. Batzarren bigarren zatian, ia ahoz batez berretsi zuten orduan lortutako akordioa. Ekainaren 13an aurkeztuko dute kooperatiba berria eta horrek hainbat onura ekarriko dituela nabarmendu du Koldo Tellitu, Ikastolen Elkarteko presidentea. Horien artean, egitura sinpleagoa eta ahots bakarra izango dituztela esan du.

Ekaina bitartean, hainbat gauza zehaztu beharko dituzte: enpresa bakarra edo korporazioa izango den, egitura berria zein izango den, langileen lekualdatzeak nola egingo diren, egoitza nagusia non izango den, zerbitzuak



nola antolatuko diren eta kooperatibaren ordezkariak nor izango diren, besteak beste. Auzolana izango da Kooperatiba berriaren printzipio nagusia eta garbi utzi nahi izan dute ikastola bako-

tzaren identitatea erakunde berriaren "gainenetik" izango dela. Ekainaren 13ko batzar eraitzaileak erabakiko dituzten puntu horiek guztiak irailaren 1etik aurrera abian egon dadin.

Euskal curriculumaren aldeko hainbat ekimen abiatu ditu EHBEK

Euskal Curriculumaren aldeko sinadurak biltzen ari da Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimena eta otsailaren 18an Donostiako Doka aretoan curriculumaren aldeko ekitadi kulturala egin zuten.

Bestalde, martxoaren 28an *Euskal Unibertsitatea '09* egingo dute Eibarran, Euskal Unibertsitatea aldarrikatzeko. Egun batez Euskal Unibertsitatea irudikatuko dute eta bertaratzen direnei euskara hutsean, eduki ugari eta ekitaldi kulturalak eskainiko dizkiete. *Badugu, bagara; Euskal Unibertsitatea plazara!* da aurtengo ekitaldirako aukeratu duten leloa.

Bestalde, Euskal Curriculum aldarrikatu, borrokatu eta eraikitzeko bidean, tresna ezinhobeak jo dituzte wikiliburuak, auzolanaren bidez curriculum eraikitzeko. Eskolaz eskola egiten direnak partekatzeko tresna modura erabil daitezke wikiliburuak, norberak bere ekarpenekin aberastu baititzake.

"Bizi euskal eskola" Iruñean

Maiatzaren 24an, XIV. Jaia egingo du Sorzen-Ikasbatuaz elkarrekin Iruñeko Takonera parkean. *Bizi euskal eskola* izan da aurtengorako aukeratu duten leloa, eta Antsoaingo Haur eta Lehen Hezkuntzako Ezkaba ikastetxea ari da festa antolatzen. Egitarau zabala prestatzen ari direla aurreratu dute antolatzaileek. Besteak beste, kale musikariak, dantzariak, pailazoak eta rock taldeak izango dira.



Ikastola kanta aurkeztu dute

Duela 35 urte ezaguna egin zen Ikastola kanta berreskuratu nahi izan dute ikastolek mezua berrituz, gaurko egoerara ekarriz eta talde lana bultzatuz. Pirritx eta Porrotx pailazoak, Aire ahizpak eta Eñaut Elorrieta Ken 7 taldeko abeslariak hartu dute parte, besteak, beste, lan horretan.

Ikastola kanta 70. hamarkadan sortu zuen Bilbon Saioka taldeak eta Euskal Herriko ikastola askotara zabaldu zen. Orain, abestia berreskuratu, eta lau bertsio jasotzen dituen CD-a kaleratu dute: lehen bertsioan, kanta osorik entzun daiteke; bigarrenean, leloa soilik entzun daiteke, ikastola bakoitzak bere hitzak sor ditzan; hirugarren bertsioa txirularekin jotzeko moldatu dute; eta laugarrena, berriz, karaokerako prestatu dute.

Jatorrizko doinua eta hitzak Saioka taldearenak dira, Xabier Zabalak egin ditu musika, moldaera, programaketa eta teklatuak. Pirritx eta Porrotxek hitzak eta ahotsak moldatu dituzte eta ahotsetan parte hartu dute baita ere Aire Ahizpek, Eñaut Elorrietak eta Oiongo ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoek. Horiez gain beste hainbat musikari eta pertsona aritu dira proiektuan lanean.



Ikastola kanta

IKASTOLA, GORA GURE IKASTOLA
KANTATZEN DIOGU IKASTOLARI
IKASTOLA, GORA GURE IKASTOLA
KANTA DEZAGUN DENOK

Goizean jaiki, gosalduta, ohea egin,
jantzi, ta banoa ikastolara, bai,
atarian bildu naiz alai lagunekin
txirrinak jotzean gelara, gelara!

IKASTOLA, GORA GURE IKASTOLA

Euskaraz hazi eta euskaraz ikasi
herritik mundura bideak ireki, bai,
elkarlanean geroa ereiten hasi
gure altxorra irabazi, irabazi!

IKASTOLA, GORA GURE IKASTOLA

Koloretan amestu, koloretan bizi
hartu eta eman maitasunez blai, bai,
sentituz pentsatu eta pentsatuz ekin
txanpa berean arraunean, arraunean!

GORA IKASTOLA, GURE IKASTOLA!

IKASTOLA, GORA GURE IKASTOLA

Kanpaina abiatu dute Ikasle Abertzaleek

Ikasle boterea eraikitzeko kanpaina abiatu du Ikasle Abertzaleak antolakundeak, ikasle mugimenduaren egoera "latza" gainditzeko eta Hezkuntza Sistema Nazionala bultzatzeko helburuz. Hezkuntza Sistema Nazionala herritarra eta parte-hartzailea eraikitzen jarraitzeko asmoa azaldu du Ikasle Abertzaleak antolakundeak eta inposatutako hezkuntza sistema arrotzei aurre egiteko beharra azpimarratu dute. Horixe da hain zuzen ere abiatu berri duten kanpainaren leloa: "Hezkuntza sistema arrotzen gainetik ikasleria eraikitzea!". Ikastetxez ikastetxe eta unibertsitatez unibertsitate egoerari aurre egingo diotela azaldu dute Ikasle Abertzaleak-eko kideek eta, ikasle mugimenduak bizirik jarrai dezan, aldarrikapen taulan zerrendatu dituzten erronkak beteko dituztela adierazi dute.

Euskararen erabilera sustatzeko gakoak bila

Euskararen ezagutzak gora egin duen arren, erabilera ez da proportzio berean hazten eta hori izan da Soziolinguistika Klusterraren II. Jardunaldian aztergai izan duten gai nagusia. Otsailaren 20an izan zen Donostian jardunaldia eta hainbat gai landu zituzten: ezagutza eta erabilerari buruzko datuak, hainbat esparrutan eragiteko moduak eta informazio eta komunikazio teknologien erronkak, besteak beste. Hainbat hitzaldi eta tailer izan ziren eta euskarak bizi duen egoera aztertzea izan zen guztien helburua.



Lanbide Heziketako tituluak Bidasoaz bi aldeetara baliagarri

Eusko Jaurlaritzak eta Pirinio Atlantikoetako Lanbide eta Artisauen Ganberak sinatu duten protokoloaren bitartez, Lanbide Heziketako tituluak Bidasoaren bi aldeetan baliozkoa aztertuko dute. Datorren ikasturtearen hasierarako, helburu zehatz batzuk aurkeztu nahi dituzte.

Obatu euskal eskola publikoari

Bergaran izango da aurten euskal eskola publikoaren festa ekainaren 7an. *Euskal eskola publikoari obatu* lelopean antolatu du aurtengo jaia EHI-GEk, Euskal Herriko Ikasleen eta Gurasoen Elkarteak. Lau gune izango dira Bergaran: ikastetxe guztiak dauden ingurua, 6 urte arteko haurrentzat izango da; Santa Maria eliza dagoen lekuan, 6-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako gunea egongo da, Bidebarrin kultur auzotasuna isalatzeko duen gunea egongo da eta, azkenik, herriko plazan, hainbat taldek kontzertua eskainiko dute.



Ikastaroak

* **Ikastolen elkartearen jardunaldiak** **Noiz:** martxoak 10, 11, eta 12. **Non:** Europa Jauregia, Gasteiz. **Antolatzailea:** Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak. **Izena ematea:** Ikastolen Elkarteak. **Informazio gehiago:** www.ikastola.net.

* **Oinarrizko kompetentziak eta gelako lana** **Noiz:** martxoak 10 eta 11. **Non:** La Bolsa erakina, Bilbo. **Antolatzailea:** Adarra pedagogia erakundea. **Izena ematea:** 944.153.795. **Informazio gehiago:** www.adarra.org.

* **Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza hezitzaileentzat** **Noiz:** martxoak 13. **Non:** EHUren Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Donostia. **Antolatzailea:** EHU. **Izena ematea:** 943.015.937 edo amaia.intxaurreaga@ehu.es. **Informazio gehiago:** www.elkarrekin.org.

* **Dibertsitatea eta kultur-anzatasuna** **Noiz:** martxoak 16 eta 17. **Non:** Bilbo. **Antolatzailea:** Hezkuntza Ildo Berriak Fundazioa. **Izena ematea:** 902.431.179 edo inscripciones@fundacionnce.org. **Informazio gehiago:** www.fundacionnce.org.

Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak, ezker abertzaleak eta LAB eata EILAS sindikatuek Nafarroako Gobernuak egin dako hezkuntza programa kritikatu dute, euskararen kontrako erasotzat eta iruzurtzat jo dutelako.

Nafarroako Hezkuntza Sailak 2009-2010 ikasturterako eskola publikoetarako programa eleaniztunak aurkeztu ditu, eta ingelesaren aldeko apustua egin du. Euskarazko irakaskuntzan ikasgaien % 30 ingelesez izango dira, eta gaztelaniaz ikasten dutenek eskolen % 40 jasoko dituzte ingelesez.

Euskarazko ereduari, Lehen Hezkuntzako azken zikloan eskolen % 30 eskainiko dira ingelesez, eta gaztelaniazko ereduaren % 40. Nafarroa osoan zabalduko da gaztelaniazko ereduaren eskaintza, eta eremu euskaldunetan eta mistoan baino ez euskarazkoa. Carlos Perez-Nievas Nafarroako hezkuntza kontseilariak adierazi duenez, "ingelesezko eskolek ez diote kal-

terik egingo ikasleen euskarazko gaitasunari, eta euskarazko hezkuntza ez da desagertuko". Oraingoz, zentro batzuetan eskainiko dituzte programa eleaniztunok, baina helburua aukerari hezkuntza sistema guztira zabaltea da, eta 15 urte beharko dira programak ikastetxe guztietara zabaltzea.

Programaren bidez bi helburu lortu nahi dituzte: alde batetik, hizkuntzak ikasgaien barnean txertatzea, eta, bestetik, curriculumaren barneko beste hizkuntzen arteko lan bateratua egitea. Teresa Aranaz Eskolako Hizkuntza Planifikaziorako Zerbitzuko zuzendariak zehaztu duenez, helburua ez da euskarari edo gaztelaniari orduak kentzea, guztien ikasketak hobetzea baizik.

Euskarazko ereduari, euskara, gaztelania eta ingeles eskolak izango dira, baina gaztelaniazkoan, gaztelania eta ingelesezko ikasketak beharrezko hiz-

kuntzak, eta hirugarren bat hautatzeko aukera izango dute ikasleek. Gaztelaniazko ereduari, hiru urtetik aurrera jasoko dituzte haurrek ingelesezko eskolak, eta lau urtetik aurrera euskarazkoan. Dena den, euskarazko ereduari ingelesezko ordu gutxiago izango badira ere, ikasleek emaitza bera lortzea espero dute; ingelesezko B2 maila, hain zuzen.

Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak programaren helburu bakarra "euskara irakaskuntza sistematik baztertzea" dela salatu du. Nafarroako Hezkuntza Departamenduak eredu berriarekin, ikasleek ingelesezko B2 maila lortuko dutela esan du eta Sortzen-Ikasbatuazek esan duenez, hori da gaur egun D ereduari ikasten duten ikasleen % 66k lortzen dutena.

Hori guztia salatzei martxoaren 6an manifestazioa egingo dute Iruñean *Iruzurrei aurre egin! Eskolak euskaldundu behar du!* lelopean.

Zurbaran Institutuan eta Sarrigurenen ez da D eredurik izango

Bigarren Hezkuntzako ikasketak D ereduari egin nahi dituzten Bilboko Zurbaran ikastetxeko ikasleek beste ikastetxe batera joan beharko dute. Izan ere, Hezkuntza Sailak ez du D eredurik jarri institutuan. Aurrerantzean ikastetxea aldatzea edo ikasketak euskaraz egiteari uko egitea besterik ez dute izango. Datorren ikasturtean DBHn hasi behar duten ikasleek orain arteko ibilbidea D ereduari egin dute, baina, hemendik aurrera, ezingo dute euskara hutsez ikasi etxe ondoko eskolan, eta urrutirago joan beharko dute. Hezkuntza Sailaren arabera, "auzoaren planifikazioa" bermatzea hartu dute kontuan eta ez Zurbaran Institutuaren planifikazioa soilik.

Bestalde, Sarrigurenen, Lehen Hezkuntzan ere D ereduari jartzeko eskatu dute hainbat guraso eta ikasleek. Eraikitzen ari diren eskola publiko berriari Haur Hezkuntza eskainiko dute soilik D ereduari, eta Lehen Hezkuntzan A eta G ereduari ikasteko aukerarik baino ez da izango. Sarriguren, Eguesibarren dago, Nafarroako eremu mistoan, eta ikasleek inguruko herritarra jo beharko dute baldin eta D ereduari ikasi nahi badute. Gaur egun hiru eta hamabi urte bitarteko ikasleen % 44k D ereduari ikasten dute.

Heziketa mistoaren alde

Nafarroako Ezker Batuak ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeek Nafarroako Gobernuaren dirurik jaso ez ezaten lege proposamena aurkeztu du Parlamentuan. Nafarroako hainbat sindikatuk bestalde, heziketa mistoaren aldeko agiria kaleratu dute, eta gauza bera eskatu diote Gobernuari: ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeekin itun ekonomikoa eteteko, alegia. Nafarroako CCOO, EILAS, Herrikoa eta Ceapas sindikatuek sinatu dute agiria eta bazterketarik gabeko heziketaren alde egin dute. Carlos Perez-Nievas Hezkuntza kontseilariaren ustez, nesken eta mutilen ikastetxeak egoteak ez du bazterketarik sortzen, inolaz ere. Dena den, Nafarroako Gobernuak hezkuntza gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko plana aurkeztu du.



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo hilabeteko galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen abenduko eztabaidak utzi diguna...

>>> Gure ikasgeletan teknologia berriak gero eta leku gehiago hartzen ari dira. Baina, teknologia horiek aukeratzekoan, kontuan hartu beharko al genituzke irizpide pedagogiko, linguistiko eta sozialak?

> Beti hartzen dira irizpide batzuk, arrazoiak agerikoak izan ala ez izan. Zergatik abiatzen gara euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez ala ingelesez? Zerbaitegatik izango da, hainbat faktorek eragiten dutelako gudan. Nik ikuspegi sozialarena ez dut hain garbi. Eskolak denen eskura jartzen baditu teknologia berriak, horrekin gertutasuna lantzen ari gara ikasleen artean, herritarren artean, azken finean. Baina hori nahikoa al da? Beste kasu bat da irizpide pedagogikoarena. Modu batera irakasten baditugu, modu horretara bideratzen ari gara eta etxean, liburutegian, edo dena delakoan, hori eskatuko dute. Horrek hausnarketa serioa eta praktika askatzaileak eskatzen ditu. Nork daki horretaz? Nork eman ditzake halako pista hezigarriak? Nik beharko nituzke. Mila esker. *Jorge*.

> Bai. Nik ere laguntza behar dut teknologia berriak ulertzeko. Hobeto esanda, teknologia berriek jokatzen duten papera jendartean, eta, bereziki, hezkuntzan bete beharko luketen egitekoa interpretatzeko. Interes ekonomiko handiek dituzten enpresek sortzen dute dinamika, eta, gainerakook haien erritmora mugitzen ari gara. Hori lortzeko, gero eta azkarrago eta etengabeagoak diren produktuak sortzen dituzte, pentsatzeko eta lasai hausnartzeko denbora uzten digutelarik. Nik horren beharra ikusten dut: denbora hartu, hausnartu, inguruko iritziak kontrastatu eta neure kriterio propioa eraiki. Dena den, hainbat mugimendu ikusi eta ez ditut ulertzen. Zergatik Administrazioek erosten dituzte hainbeste informatika programa eta ordaintzen dute horrelako dirutza, software libreak daudenean? Extremaduran ez omen zuten dirurik erosteko eta Administrazio osoan Software libreen bidez ari omen dira lan egiten. Han, pertsonalean eta material informatikoan inbertitu zuten. Hemen, dirua barra-barra botatzen ari dira... Gero, behar garrantzitsuak diren heziketa prozesuetarako ez omen dago dirurik... Dirua badago, baina oso gaizki erabilia. Ez al da hala? *Miren*.

> Zer da baina, ikuspegi soziala? Txistea dirudi. Hain norbanakoen aldeko den jendartean nola planteatu liteke ikuspegi soziala? Soziala, antza, sozietatetik dator. Ongi, ederki, zoragarri, ederto... Hemen ez dago sozietaterik. Euskal Herriko sozietatea aspaldi txikituta zuten, birrindu, deusez egin... Nork sinisten du herrian? Jendartean? Taldeen bizitzan? Behatza jaso duen horrentzat meritua, gezur hutsaren hurrengo baita. Funtzionario sistema espainiar zentralista, edota frantsesa, herrien txikitzaile diren horietan, amesten duen jendarteak zer ekarpen positiboa egin lezake jendarte hobe baten alde? Bat ere ez. Gezurtero patatero hutsak dira. Nik, Herriatik, Euskal Herriatik sor litezkeen proposamenekin amets egin nezakeen, nola ez! Eta ziur naiz, hortik sortutakoa, estatu zapaltzaile batek eskain lezakeen baino askosaz ere hobea sor litekeela. Informatika edota teknologia berrietan ere, ikuspegi herritarra eta askea ezinbestekoa da, zapaltzaile hutsak izan nahi ez badugu... AMEN! *Aitor*.

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Gure inguruan zenbait ikastetxetako ikasleek uniformeak erabiltzen dute. Beste herrialde batzuetan ere, Kuban, esaterako, erabiltzen dute. Zer iritzi duzu uniformearen erabileraz?


Partekatze proiektuak

Eskuarteetan proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzerantz bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatze aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberasteko aukera dugu. Anima zaitzete besteekin PARTEKATZERA!

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?


Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Rita Ipar Poloan
Mikel Valverde
ELKAR

Rita aitarekin doa Ipar Polora, osaba Daniel ikerlaria bisitatzeraz; aukera polita du Ritak paraje haiek eta inuit herria ezagutzeko. Baina aita-alabak Polora iritsi direnean, osabaren itsasontzia izotz artean harrapatuta dagoela jakingo dute. Ez dago denbora galtzerik. Erreskatatu egin behar dute! Mikel Valverderenak dira testua eta irudiak •



Ortzadarraren azpitik
Antton Kazabonek
EREIN

Batix izeneko mutikoaren abenturak idatzi ditu Antton Kazabonek. Aitonaren jarrerak, jakinmina piztu eta bertso bat goitik behera aztertuko du Batixek. Ortzadarraren azpitik jauzi egin eta norabaitera joaten dela garbi du, baina nora joaten ote da ortzadarraren azpitik salto eginda? •



Pozik zure itxurarekin?
Psikor taldea
VITAL KUTXA

Gaztetxoek euren burua zuzenago ikusteko eta itxura fisikoa onartzen laguntzeko agenda pertsonala da "Pozik zure itxurarekin?" izeneko. Sei urratsez osatutako ibilbidea eskaintzen du, eta norkbere buruaz duen ikuskera hobetzen laguntzeko estrategiak eskaintzen ditu •



**EAEko euskararen belaunez
belauneko transmisioa**
EUSKO JAURLARITZA

Euskararen familia bidezko transmisioa aztertzen duen 2006ko ikerketa soziolinguistikoaren emaitzak jaso dituzte liburu honetan. 1991tik hona bost urtetik behin egiten duten inkesta da, baina azken honetan, inkestatuek gurasoengandik jasotako hizkuntza ez ezik, seme-alabei transmititu dietena ere aztertu dute •



Animalien inauteria
Mundina
SAURE

Tasmaniako tigreen abenturen berri kontatzen digu komikiak. Tigrea duela mende bat desagertu zen, baina oraindik bada ale bat gure artean. Kasu bitxia da eta epaile ingeles bati deitu diote hori ebazteko. Epaileak, gure artean halakorik ez dela eta, tigrea kondenatu du... Baina horrek ihes egin eta munduko inauteriak bisitatuko ditu •



**MacArthur-Bates. Komunikazio
Garapena Neurtzeko Zerrenda**
Hainbat egileren artean
UEU

Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrendak (KGNZ) izeneko tresnari buruz ari da. AEBetako MacArthur fundazioak sortu zuen eta euskarazko egokitzea egin dute. KGNZk hizkuntza-jabekuntza goiztiarraren prozesuaren berri ematen du, eta horretarako komunikazio-garapenaren hainbat alderdi hartzen ditu kontuan •

... nora joango gara?

Planetarium

Planetak, sateliteak, izarrak... bertatik bertara


Duela gutxi inauguratu dute Zientziaren Kutxagunean dagoen Planetarium berria. Zehazki, bi dira planetariumak: bata, txikia, puzgarria, haur txikientzat prestatua, eta bestea, handia, ikusgarria, zaharragoentzat pentsatua. Eseri, ikusi eta entzun. Besterik ez du egin behar Planetariumera gerturatzeko den orok. Baina harregarria da, aulki batean lasai eserita, Unibertsoa hain era errealean ikustea. Kupula handi batean proiektatzen dituzte irudiak, eta, ikuslea, espazio-ontzi batean bezala senti daiteke. Planetak, sateliteak, izarrak... Guztia bertatik bertara ikusgai. Hori dirudi, behintzat. senti daiteke. Planetak, sateliteak, izarrak... Guztia bertatik bertara ikusgai. Hori dirudi, behintzat.



Duela gutxi inauguratu dute Planetarium berria eta, jada, Unibertsoetik pasatzea eta planetak, sateliteak edota izarrak haien ondoan egongo bagina bezala ikustea posible den arren, eskaintza zabaltzen ari dira pixkanaka, dituzten programak adinen arabera egokitzeko. "Orain arte gure eskaintza oso mugatua zen, eskaintza didaktikotan programa bakarra genuen, Egunero zerua deitzen dena, eta horrekin

jarraitzen dugu, baina hainbat mailatarra egokitzen ari gara. Hezitzaile batek gidatzen du, eta luraren mugimenduak lantzen dira batez ere: errotazioa, translazioa... Urtaroak, Ilargiaren faseak... eta horrelakoak ere lantzen dira. Baina hori zabaltzea nahi dugu, eta eklipseak, adibidez, zaharragoekin ere landu nahi ditugu. Edukiak egokitu nahi ditugu", esan digu Miren Millet Planetariumeko arduradunak.





Bi planetarium daude. Txikia, puzgarria dena, haur txikienekin erabiltzen dutena da, lau eta bederati urte bitartekoekin. Planetarium txikia oso arrakatsua da, haurrek asko maite dute, barruan sartzen dira eta giro berezia sortzen da. Haurrek material didaktikoa dute jarduerara egin ondoren hori osatzeko, eta Roke izeneko kohetearen begiradapean egiten dute lan.

Haur txikiak izutu egiten dira Planetarium handian argiak jaisten direnean, baina, dena den, Planetarium handia ere haur txikien erabiltzea planteatzen ari dira, bospasei urtetik gorakoekin. Planetarium handia guztiz berritu dute: kupula, argitze sistema... Izarrak eta astroak sortzeko softwarea eta proiektzio sistema erabat berria da, eta punta-puntakoa, gainera, Mikel Goñi Berrikuntza eta Dibulgazio zuzendariak esan digunez. Besteak beste, izarren errepresentazio zehatza ikus daiteke, eta baita zerua 100 urte barru nolakoa izango den ere. Irudiak oso errealak dira, eta espazio-ontzi batean bageunde bezala ikus daiteke Unibertsoa, bertan bageunde bezala. Ikusgarria da, eta bidaia horretan asko ikas daiteke.

PLANETARIUM

Zientiaren Kutxagunea
Mikeletegi pasealekua, 43
20009 DONOSTIA (Gipuzkoa)
www.miramon.org
Telefona: 943 012 917 (erreserbak egiteko)



Oharrak:

- Planetarium handian 142 lagun sartzen dira.
- Jarduera guztiak lau hizkuntzatan egin daitezke: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.
- Prezioak:
 - Arrunta: 3,5 euro.
 - Murritzua: 2,5 euro.

Hezkuntza eskaintza*:

>>> Planetarium

Eguneko zerua (Lehen Hezkuntza. 2. eta 3. zikloak)

Lurraren mugimenduak ikastea da jardueraren helburua.

Eguneko zerua (Bigarren Hezkuntza. 1. eta 2. zikloak)

Lurraren eta Ilargiaren errotazio eta translazio mugimenduak ikuste eta, horien ondorioz, sortzen diren fenomeno astronomikoak azpimarratzea da helburua.

Itsua izar begiekin (Lehen Hezkuntza. 1. zikloa)

Haurrei azalpen astronomikoa duen ipuina kontatzen diete.

Kartoizko suziriaren sekretua (Lehen Hezkuntza. 3. zikloa)

Eguzki sistemako planetak ezagutzea da helburua. (Apiriletik aurrera eskainiko dute).

>>> Planetarium txikia

Peru eta Maddiren abentura (Haur Hezkuntza)

Egunaren eta gauaren elementu esanguratsuen ezaugarriak eta propietateak identifikatzea, fenomeno meteorologiko batzuei behatzea eta horiek ulertzea da helburua. Baita Eguzkia eta Ilargia lantzea ere.

Artolabenturak (Haur Hezkuntza)

Oinarrizko espazio-nozioak erabiltzea, norberaren eta objektuen kokapena azaltzeko. Formak eta gorputzak espazioan: goian/behean eta urrun/hurbil.

Roke, kohete despistatua (Lehen Hezkuntza. 1. zikloa)

Helburua, sistemaren elementu diren Lurra, Eguzkia eta Ilargia identifikatzea eta horien ezaugarri garrantzitsuenak aztertzea da. Planeta-elementu astronomikoak identifikatzea eta sailkatzea. Lurraren eta hurbileko planeten arteko harremanak eta horien antolamendua lantzea.

Artola bola, arranopola! (Lehen Hezkuntza. 1. zikloa)

Helburua, inguru naturaleko eta kulturalen forma geometrikoak identifikatzea da, elementu horien ezagutza mundu fisikoa aztertzeko erabiliz. Elementu eta fenomeno natural batzuen deskribapena egiten da: Ilargia, Eguzkia eta izarrak.

* Gaur egun Planetariumak duen eskaintza etengabe zabalzen ari da.



Maite ARISTEGI

BASERRITARRA

Aste honetan egin dut topo harekin aspaldiko partez. Amonatxo maitagarriak, bastoitoxoan eusten zelarik, ahotza nahiko umildua garai batetik, irribarre goxo batez agurtu nau. Pentsatzea ere, nolako beldurra genion matematikako andereño zorrotz beti-umoretxarreko hari garai haietan! Nola ez diegu bada, zenbakiei zeharka begiratu-ko? Denok arbelera irteteko ikaraz, jaso genezakeen belarrondokoaren beldurrez. Ai, zenbat autoestima arazo ekarri ote dituzte arbel eta jarrera haiek! Frantseseko andereñoagatik galdetu dit. Ea aspaldi ikusi dudan edo. Eta haren “le-

Baratza lantzen

txetxarraz” oroitu naiz. Behin ikaskide bati “*el perro del panadero*” itzultzeko agindu eta “*leper di panader*” esanzue-nekoaz. A zer nolako astindua jaso zuen gizarajoak! Garai batean hainbeste izu eragindako musu ximurtuari bi patxo eman, eta oroimenekin jarraitu dut. Bere ondoren izan genuena ez bait zen izan goxoagoa, ez horixe! Gelan sartu orduko haren bekozko ilunaren mehatxua. Gustuko ez zuen iritzi politikoa susmatze hutsarekin, marra beltzez markatzen gintuen. Harik eta ikasle batek labanaz zauritu zuen arte, institutu guztia eta gure sentimenduak aztoratuz...

Baina uxa ditzagun oroimen kaxkar horiek. Zorionez, izan baitira bizitza abentura zoragarria dela sinesterazi didaten irakasleak. Gutariko bakoitza, izan mehe edo sendo, ahul edo indartsu, bakoitza bere erara, ahalik eta fruiturik ederrenak emateko landaretxo legez hartu gaituztenak. Landare mor-

doxka biltzen zituen ikasgela baratza sailtxoa bailitzan, maitasun guztiarekin zaintzen zutenak, bizitarako uzta bikaina emateko prestatuz.

Gogoan dut bereziki, ikastolen has-tapenetan, euskal abestien bitartez euskararekiko maitasuna itsatsi zigun hura. Doinu haiek gaurdaino jarraitzen dute nigan. Eta zenbat aldiz lagundu didan musikak sentipenak, pozak, tristurak... azaleratzen. “Bizitza musika da; bakoitzak barruan dituen doinuak at-eratu egin behar ditugu”. Komunikazioaren, elkar ulertzearen garrantziaz ohartarazi zigun. Eta horretarako hain lagungarri den umorearen, barrearen txertoa ere hark jarri zigulakoan nago. Hari eta aske bizi izateko, geure txikitasunean duin eta zintzo jokatzeko balioak, tresnak, eman dizkiguten beste guztiei, ahal den heinean zoriontsu izan eta besteak pixka bat zorionsuago egiteko jorratze lana egin eta egiten dutenei, mila esker.



4 eta 12 urte bitarteko haurrek 1.500 ordu pasatzen dituzte telebista ikusten, batez beste. Eskolan, berriz, 900 ordu inguru egiten dituzte urtean. Adingabeen artean, hirutik batek telebista dauka bere logelan, eta hura, bakarrik ikusteko ohitura du.


Iturria: *Online iraultza: Gazte logelan* jardunaldia. 2009-02-18, Bilbo.

Harpidedun berrientzat bi ale monografiko



aukeran

Jardunaldiak



KONSTRUKTIBISMOA eta hezkuntza

Apirilaren 25ean (larunbata) BILBON - Apirilaren 27an (astelehena) DONOSTIAN
Saio bera izango da bi hirietan

9:00 Karpetak eta materiala banatzen hasiko da.

9:30 Konstruktibismoaren ikuspegi orokorra eta betekizuna.
* **Lontxo OIHARTZABAL**. LHko eta EHUko irakasle ohia.

10:30 Zergatik konstruktibismoa? Zein dira buru egituraketa nagusiak? Zer ondorio ditu horrek guztiak ikasketa prozesuan?

* **Mario CARRETERO**. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko katedraduna. Giza Zientzien Latinoamerikar Fakultateko iker-tzailea Argentinan. Egun, AEBetako Harvard unibertsitatean dihardu. Ikerketa eta liburu ugariaren egilea. (gaztelaniaz).

11:30-12:00 Atsedenaldia

12:00 "Lurbiran" proiektua. HH-LH

* **Mertxe AMONDARAIN** irakaslea (Berrobiko eskola).

12:30 "Hizkuntza lehiaketa" proiektua. HH-LH

* **Elena LAIZ** eta * **Mintxa UZKUDUN** irakasleak (Zizurkil Goikoko "San Milan" eskola).

13:00 Zertan zentratu behar du Gizarte Zientziak irakasten dituen irakasleak? Adibide zehatzak jarriko dira.

* **Mario CARRETERO** (gaztelaniaz)

14:00-15:30 Atsedenaldia

15:30 "GASekin esperimentatzen". DBHko eta Batxilergoko esperientzia praktikoak.

* **Mikel ETXANIZ** irakaslea (Pasaia-Lezo lizeoa).

16:30 Zertan zentratu behar du, non jarri behar du atentzioa, Natur Zientziak irakasten dituen irakasleak? Adibide zehatzak jarriko dira.

* **Mario CARRETERO** (gaztelaniaz)

Informazioa eta izena ematea

943 371 408

www.hikhasi.com